



# **Antolamendua aren Oinarriak**

**AHAL DUGU  
PODEMOS**





# Antolamenduaren Oinarriak

AHAL DUGU  
PODEMOS



# AURKIBIDEA

SARRERA .....	7
1. PARTE-HARTZEA .....	7
2. GARDENTASUNA ETA FINANTZA-INDEPENDENTZIA: KONTUAK GARBI ...	8
3. KONTROL DEMOKRATIKOA .....	9
I. IZENBURUA: ANTOLAMENDUAREN OINARRIAK .....	11
II. IZENBURUA: ESTATU-MAILAKO EGITURA .....	13
1. KAPITULUA. HERRITARREN BATZARRA .....	13
2. KAPITULUA. HERRITARREN KONTSEILUA .....	17
3. KAPITULUA. IDAZKARITZA NAGUSIA .....	22
4. KAPITULUA. BERME DEMOKRATIKOEN BATZORDEA .....	23
III. IZENBURUA: HERRIALDE EGITURA .....	25
1. KAPITULUA. HERRIALDEETAKO HERRITARREN BATZARRAK .....	25
2. KAPITULUA. HERRITARREN HERRIALDE-KONTSEILUAK .....	29
3. KAPITULUA. HERRIALDE-IDAZKARITZA NAGUSIA .....	30
IV. IZENBURUA: ZIRKULUAK .....	31
1. KAPITULUA. HELBURUAK ETA DEFINIZIOAK .....	31
2. KAPITULUA. ZIRKULUEN ESKUMENAK .....	33
3. KAPITULUA. ZIRKULUEN ANTOLAMENDUAREN OINARRIAK .....	36
V. IZENBURUA: ADMINISTRAZIO ETA KONTROL DEMOKRATIKOA .....	40
XEDAPEN IRAGANKORRAK .....	41
I. ERANSKINA: HERRITARREN BATZARRAREN PROZEDURAK .....	43
II. ERANSKINA: EZTABAIDARAKO DEIALDIAK HERRITARREN KONTSEILUETAN	46
1. MODULUA: ANTOLAKETAKO TRESNAK SAREAN PODEMOSEKO ZIRKULUENTZAT	47
2. MODULUA: FINANTZIAZIOA .....	49
3. MODULUA: KONTROL DEMOKRATIKOA .....	60



# SARRERA

Podemosek, boterea herritarren esku jartzea helburu duen herri-plataformak, aldaketa politikoaren palanka izan nahi du, herri-subiranotasuna berreskuratzeko tresna. Gauza asko eta handiak lortu ditugu hilabete gutxitan, baina ez dira oraindik iritsi benetako erronkak. Urte askoan galtzaile izan ondoren, porrota porrotaren gainean, ez da zaila itsutzea eta goia jo dugulako irudipen faltsua hartzea. Podemos ez da jaio, ordea, indar testimonial eta bazterrekoa izateko -hala moduzko eraginarekin-; herritarrok gure instituzioen eta etorkizunaren kontrol demokratikoa egiaz eta efikaziaz eskuratzeko xedearekin sortu da. Horretarako, proiektu sendo eta integral bat behar dugu, oinarri etikoak, politikoak eta antolamenduarekin lotutakoak modu koherentean egituratu eta ardaztu daitezen horren inguruan. Era horretan bakarrik lortuko dugu herri-alternatiba egiazkoa izatea.

Antolamenduaren oinarriei dagokienez, ezinbesteko da honaino ekarri gaituzten ezaugarri eustea: **herritarren parte-hartzearen** aldeko apustua, konpromiso tinkoa **gardentasunarekin** (kontuak garbi), eta kontrol demokratikoaren eskakizun irmoa izan dira gure markak eta zeinezko bereizgarriak, eta hala izango dira aurrerantzean ere.

## 1. PARTE-HARTZEA

Herritarren parte-hartzea Podemosen oinarri printzipalenetako bat da. Parte-hartzeak eta Demokraziak (herritarren parte-hartzerik gabe nekez hitz egin daiteke demokrazia egiazkoaz) ezinbestez eskatzen dute politikariaren eta alderdi politikoaren eginkizuna birdefinitzea: ikuskerak horretatik, politikariaren eginbehar lehena herritarren parte-hartzea sustatzea da, jende xeheak -herritarrek- gero eta protagonismo handiagoa izango duen prozesu jarraitu eta etengabe batean. Horrek ez du esan nahi, ordea, bereizketa egin behar denik militanteen eta herritarren artean, politikaren barruan eta kanpoan daudenen artean. Gure helburua herritarrek -ahal diren gehienak- politikara erakartzea da, gauza publikoen gestioan, erabakietan eta azterketetan parte har dezaten.

Orain dela hilabete batzuetatik, Espainiako historia politikoan inoiz ezagutu ez den erronka bati aurre egiten gabiltza: milaka pertsonaren parte-hartzea antolatze eta egituratzeko kapaz izango diren espazio demokratikoak sortzen eta sendotzen ari gara, horiek izango baitira gure erakundearen muina eta oinarritzko nukleoa. Parte-hartzea erreala izatea nahi dugu, bai garapenean, bai ondorioetan, eta, hala izan dadin, edozein herritarrek esku hartu ahal izango du espazio demokratiko horietan, inolako oztoporik, trabarik eta distantziarik gabe.

Eztabaidarako eta deliberaziorako espazio libre bat, **Podemos Plaza**, sortu dugu, eta hor denon artean hartzen ditugu erabakiak arduratzen gaituzten kontuen gainean; proposamenak eztabaidatzen ditugu, eta ideiak eta proiektuak sortzen ditugu aldaketa politikoa eragiteko xedearekin. Gure apustua zirkulu bakoitzean eztabaidarako gune eraginkorrak, kontsentsuak lortzeko gai izango direnak, sortzea da, -Loomio da halako bat, adibidez-, horixe baita modu bakarra Podemosen dena garbi eta garden izan dadin eta guztion parte-hartzearekin funtziona dezagun.

**Talentu Banku** bat sortu dugu, nornahik parte hartu ahal dezan gure alderdi politikoan, bazterketa-mekanismoen bahetik pasatu gabe. Zirkulu guztietan martxan jarriko da tresna hori, eta horren bidez lantalde sendoagoak eta eraginkorragoak izango dituzte.

Asmo hori gogoan, komunikazio-kanal propioak sortu ditugu, erabakiak eta mezuak azkar bidaltzeko elkarri, -**Appgree**, kasu-, eta kanal horien bidez erraz, seguru eta efikazia handiz lortu ahal izango ditugu kontsentsuak eta gehiengoak. Hortaz, badugu gure aplikazioa, Appgree, eta

komunikazio-kanal gehiago ere sortuko ditugu, hilabete gutxi barru halako bat eduki dezaten zirkulu guztiek.

#RuedaDeMasas/Masengurpila kontzeptua -eta praktika- sartu dugu gure jardunbidean; horri esker elkarrizketa errealak bitartekaririk gabe egiten dira aurreneko aldiz; espazio horretan herritarrek erabakitzen dute zer galdetu. #PreguntaAPodemos/GaldetuPodemosi kanalean ere erantsi dugu formatu hori, hor etengabea da-eta komunikazioa.

Estatuko herrialde eta eskualde guztietan **parte-hartze taldeak** sortzea da gure asmoa, horien arteko arrakala teknologikoa murriztuz joan dadin pixkanaka; hala, parte-hartzeko eta deliberrazioko espazioetan egiten diren eztabaida guztiak eraman ahal izango ditugu zirkulu guztietara, eta, alderantziz: zirkuluetan sortzen den guztia, ozen eta garbi, iritsiko da sareetara eta kalera.

Podemosen parte hartzen dutenak dira alderdiaren bizkarrezurra; beraz, zirkuluek eta jendeak sustatuko dituzte herritarren kontsultak, eztabaidak eta ekimenak, eta, era horretan, Podemosen jardunbidea definituko dute datorren aldi politikorako.

#ClaroQuePodemos-HorixeAhalDugula-ren apustua norabide horretan lan egitea da; hau da, etengabe indartzea parte-hartzeko mekanismoak eta martxan dagoen herritarren aldeko prozesu geldiezina.

(1. moduluan zehatzago adierazten dira parte-hartzea sustatzeko proposamenak).

## 2. GARDENTASUNA ETA FINANTZA-INDEPENDENTZIA: KONTUAK GARBI. «GU JENDEAREN ZERBITZURA GAUDE»

**Gardentasuna** eta **independentzia** Podemosen muinean daude; gure finantza-kudeaketaren DNAREN parte dira, sinetsita baikaude bi printzipio horiek gizarteak alderdi politikoei eta Administrazio Publikoari egiten dien eskaera dela.

Behar-beharrezko da gardentasuna, kontuak argi ematea, bai eta kontrol-mekanismoak izatea ere; izan ere, 78ko erregimeneko alderdien finantziazioaren gakoa izan da azpijokoan aritzea, isilpean eta ilun, eta babestu egin dituzte, hala, jardunbide ustelak. Guk jaiotzearekin batera agindu genuen geure **kontuak publikoak eta agerikoak** izango zirela, eta aise eskuratuko zituela edonork, hala nahi izatera. Bere ekimen eta jarduera politikoetan, Podemos markak bereizgarritzat dauzka gardentasuna, kontuak garbi ematea eta herritarren begiradapean egotea, eta mekanismo horiek definitu beharko lituzkete, luze baino lehen, administrazio publikoak eta Estatuaren bestelako instituzioak.

Gainera, guztiz konbentzituta gaude menpekotasun finantzarioak menpekotasun politikoa dakarrela berekin. Horregatik, kontuen gardentasuna segurtatzeaz batera, gure **independentzia finantzarioa** ere bermatu behar dugu. Ez dugu onartzen bankuekin zorrak egitea, ez eta pertsonen edo enpresek dirutza handiak ematea ere, donazio moduan, gure diskurtsoa eta proposamenak baldintzatu edo hipotekatu egin dezakete eta. Askoren laguntzarekin gutxi batzuen lapurreta lotsagabeekin bukatu dezakegula uste dugu.

Printzipio horiek bermatzeko, Podemosen orain arte lanean aritu den finantziatio-taldeak koordinatuko du, zirkuluen finantziazioan jardun duten pertsonekin batera, **finantziatioaren eta kontu garbien protokolo bat**, dokumentu honen parte organikoa izango dena (gure webgunean kontsultatu ahal izango da).

Protokolo horretan, proposamen bat erantsiko dugu, finantza-aparatua estatu-mailako egituraren kontrolpean egon dadin. Hala, lekuan lekuko beharrei erantzuteko behar diren diru-



transferentziak egingo lirateke egitura orokorretik; gure finantzak eta diruaren joan-etorriak erakundearen barrutik zorrotz kontrolatzea da helburua, horixe baita modurik onena gure printzipioei leial eusteko.

Alderdien finantziazio-legea konplutuz, **barne-kontrolako txosten-eredu** bat egingo du Finantziario-taldeak, eta txosten horrek antolaketaren maila guztietan ziurtatuko ditu finantziarioaren gardentasuna eta kontrol-mekanismoak. Horrekin batera, kexak, erreklamazioak eta salaketak garantia guztiekin aurkezteko bideak ere zehaztu beharko ditu.

Dokumentu horretan bide eta modu batzuk proposatuko dira, Herritarren Batzordetik ateratzen diren antolaketa-unitateek diru-sarrerak eta ordainketak Podemosen izenean kudeatu ahal ditzaten, betiere erakunde osoarentzako arriskuak ahal den neurrian gutxituz. Kontuan hartuko dira, kontabilitate- eta finantza-erantzukizunen banaketan, irizpide profesionalak eta, batez ere, zuhurtzia.

Azkenik, gidalerro batzuk emango ditugu gure alderdiaren **aurrekontuen eta barruko gastuen gainean**, ekonomiari eta efikaziari begira. Modu horretan, irizpideen homogeneousutasuna bermatuko dugu, eta dirua ez dela alferrik xahutuko segurtatuko dugu; hau da: herritarrek proiektu honetan jarri dituzten baliabideak optimizatuko ditugu.

(2. moduluan zehatzago adierazten dira finantziarioarako proposamenak).

### 3. KONTROL DEMOKRATIKOA

Ordezkarri politikoak herritarren zerbitzura daude, eta hitzarmen bat egiten dute beren hautesleekin eta herriarekin, guztion onerako lan egingo dutela konprometituz. Alabaina, ordezkatzen dituzten pertsonak baino botere gehiago bereganatzen duten neurrian, hautesleek etengabe kontrolatu behar dituzte beren ordezkarri politikoak, hainbat bide eta mekanismoren bitartez (kontuak eskatuz, ebaluatuz, karguak berrituz eta beste); modu horretan, saihestu egiten da erakundearen maila pribilegiatuak eta mugiezinak sortzeko arriskua, eta segurtatu egiten da, aldi berean, Podemoseko organo guztiek zintzo eta leialki ordezkatuko dutela beren kide gehienek borondatea.

Podemosek apustu irmoa egin du gardentasunaren alde, eta bere kargu publikoak behartuta daude kontuak argi eta zehatz ematera. Horretarako, harremanetan jarri gara **«quehacenlos-diputados.net»** (zer egiten dute diputatuek) taldearekin, are eta zorrozkiroago ezarri dezaten kontrol demokratikoa Podemosen gainean; modu horretan, geure baliabide edo atari propioa izango dugu herritarrei kontuak emateko.

Uste dugu herritar guztiek erraz eta azkar eskuratzeko moduan egon behar duela edozein kargu publikori buruzko informazioak, jarduera parlamentarioari dagokionez; era berean, denon agerian eta argi adierazita egon behar du, gure iritziz, kargu publiko bakoitzak zenbat diru jasotzen duen eta zenbatekoa den haren ondasuna. Horregatik, parlamentuko parte-hartzeaz eta botazioez informatzearekin batera, zehatz eta argi eman behar dira parlamentari bakoitzari buruzko datu ekonomikoak ere: zer soldata jasotzen duen; nora edo zertara doan ematen duen soldataren parte bat (ematen badu); zertarako baliatzen diren haren esku jartzen diren herritarren diruak -esleipen publikoak-, eta, oso inportantea dena, haren ondasunen deklarazioak eta bankuko kontuek ere publiko eta ageriko izan behar dute Ez dago beste biderik segurtatzeko gure ordezkariek ez dituztela inoiz erabiliko kargu publikoak beren probetxuan irabaziak ateratzeko.

Gure jarduera publikoa osorik eta argi erakustea, hauteskundeetan egindako promesa izateaz gainera, beharrezko kondizioa da hautatu diren ordezkariek herritarren alde eta faboretan lan egingo dutela ziurtatzeko.

(3. moduluan zehatzago adierazten dira kontrol demokratikorako proposamenak).



# I. IZENBURUA: ANTOLAMENDUAREN OINARRIAK

**1. artikulua.** Podemos alderdi politikoa da, eta gizartearen alor guztietan **demokrazia eta giza eskubideak defendatzea** eta indartzea dira bere helbururik behinen eta lehenak. Podemos modu demokratikoan antolatuta dago, eta bere kideen eztabaida eta parte-hartze irekia eta zuzena sustatzen ditu, erakundearen erabakiak hartzeko.

**2. artikulua.** Podemosek eskura dituen **tresna eta baliabide guztiak** erabiliko ditu, **zuzenekoak eta telematikoak**, bai herritarren protagonismoa bultzatzeko, erakundearen barruan nahiz kanpoan, bai parte-hartze zuzena sustatzeko, jendeak erabaki publikoak eta politikoak har ditzan.

**3. artikulua.** Podemoseko kide guztiek dute hitzerako eta botorako eskubidea, eta ez da inor diskriminatuko arrazoi hauek direla medio: herritartasuna edo nazionalitatea, zer herritatik edo lekutatik etorria den, itxura fisikoa, jatorriz zer leinu edo etnikotakoa den, hizkuntza, desgaitasuna, adina, daukan iritzia -politikoa edo bestelakoa-, erlijio-sinesmenak, sexua, sexu-aukera, joera edo zaletasuna, heziketa, egoera zibila edo familiarra edota kondizio edo egoera ekonomikoa. Eskubide hori egiaz gauzatzen dela bermatzeko, Podemosek Estatuko hizkuntza guztiak erabiltzera joko du, eta sustatu egin du horien erabilera; ahaleginak egingo ditu hizkuntza bakoitzaren espazioak eta dokumentuak zabaltzeko eta haietara iristeko bidea leuntzeko; heziketa sustatuko du; erraztasunak emango ditu lana eta bizitza pribatua bateratzeko, eta dibertsitatea bultzatuko du. Podemoseko kide guztien botoek balio bera dute, bai kuantitatiboki (**persona bat, boto bat**), bai kualitatiboki (ez dago boto berezirik); eta ezin da aldatu, inola ere, berdintasun politikoaren printzipioa.

**4. artikulua.** Podemosen denek dute eskubidea sufragio aktiborako (norbait hautatzeko) eta pasiborako (hautatua izateko, adinez nagusi izatea beste kondiziorik gabe) erakundearen maila guztietan, betiere gure Kode Etikoak eta barne-arautegiek zentzu horretan definitzen dituzten mugen barruan.

**5. artikulua.** Podemosek generoaren kasuan bakarrik egiten du salbuespena sufragio pasiborako eskubidea (hautatua izatekoa) gauzatzean, emakumeen ordezkariak sustatu beharrez. Podemoseko egituraren barruko organoen ordezkarietan emakumeen eta gizonen arteko oreka gorde behar da, eta genero bakoitzarentzako ratioak 40/60koa izan behar du -ezingo da gainditu proportzio hori ez goitik, ez behetik-. Berdintasunerako eskubidea egiaz gauzatzen dela bermatzeko, ahaleginak egingo dira emakumeen eta gizonen parte-hartze aktiboa mugatu ditzaketen oztopo eta traba guztiak kentzeko. Podemoseko organo betereazleek ekimen horiek jaso, eta egitasmo bat aurkeztu behar dute urtero, eta, horren barruan, lana eta familia bateratzeko plan bat egon behar du, bai eta seme-alabak zaintzearengatik eszedentzia kontzeptua ere.

**6. artikulua.** Zirkulua da oinarritzko unitatea Podemoseko antolamenduan. Zirkulua tresna bat da, eta horren bidez parte-hartzea, eztabaida eta gizartearekiko harreman aktiboa bultzatzen dira. Zirkulua sortzeko, antolatzeko, handitzeko eta barruko funtzionamendua arautzeko, *Zirkuluak onartzeko eta balioesteko protokolo*-an ematen diren jarraibideak bete behar dira, Estatu-tuen parte baita atal hori, horretarako ere propio egina.


**7. artikulua.** Estatutuen eta Kode Etikoaren aginduak eta jarraibideak beteko dira bai hauteskunde-programak egiteko eta hautagai-zerrendak osatzeko -ordezkaritza instituzionaleko organoetarako bozetan-, bai eta Podemoseko Herritarren Kontseiluko kideak eta bozeramaileak hautatzeko ere (ateak zabalik izango dituzte beti herrialde bakoitzean eta tokian tokian bertako kideek). Orobat, hauteskundeetara aurkeztu aurretik, herritarren artean eztabaida-prozesuak

irekiko dira beti programen edukien gainean, eta horietan aukeratuko dira hautagaiak, herritarrek modu irekian berretsi ondotik.

**8. artikulua.** Podemos estatu-mailan diharduen erakundea da, eta unibertsaltasun-irizpideak, koherentzia eta erantzukizuna gidatzen ditu bere jardunean. Estatu-mailako Herritarren Batzarrari (Podemoseko kide guztiei, alegia) dagokio erabakiak hartzea Podemosi bere osoan eragiten dioten auzietan, non eta organo jakin baten esku uzten ez duen eginkizun hori; Herritarren Batzarrak kasu guztietan baliatuko du, gainera, erabakitzeko eskumen edo ahalbide hori, auziak zein-nahi sektoretan edo herrialdetan sortuagatik. Estatu-mailako Herritarren Batzordeak (edo horrek propio izendatzen dituen organoek) hartuko ditu erabakiak funtsezkoak diren auzietan -politika orokorrean jarduteko oinarrizko lerroak, antolaketaren helburuak, finantziario-bideak, ordezkaritza eta egintza juridikoak, herrialde guztietako hauteskunde-estrategia orokorren planifikazioa, balizko akordioen edo aliantzen definizioa beste alderdi politikoekin edo talde sozialekin, eta abar-. Podemoseko kide guztien parte-hartzeak eta erabakiek garantizatuko dute, azken batean, erakundearen ekintza koordinatu, koherente eta arduratsua sektore eta herrialde guztietan.

**9. artikulua.** Podemosek sustatu egiten du bere kide guztien zuzeneko parte-hartzea erakundeari modu inportantean eragiten dioten erabakietan eta deliberamendu-prozesuetan, eta eskura dituen tresna guztiak, zuzenekoak eta telematikoak, erabiliko ditu parte-hartze demokratikoa zabaldu eta garantizatze aldera. Podemosek parte-hartzeko espazio presentzial eta zuzenekoak bultzatuko ditu, eta, aldi berean, hainbat tresna informatiko erabiliko ditu, deliberazioa errazteko eta erabakiak denon artean hartzeko. Erakundearen maila guztietatik, eta bereziki Zirkuluetatik, ekimenak bultzatuko ditu, Internet erabiltzeko zailtasunak dituztenek Podemosen kondizio berberetan parte hartu ahal dezaten.

## II. IZENBURUA: ESTATU-MAILAKO EGITURA




### 1. KAPITULUA. HERRITARREN BATZARRA

#### 10. artikulua. Definizioa

Herritarren Batzarra edo Estatu-mailako Herritarren Batzarra da Podemoseko erabaki-organo gorena, eta **modu jarraituan** betetzen ditu bere eginkizunak. Podemoseko parte diren guztiek eskubidea dute Herritarren Batzarrean esku hartzeko, une oro, hitzarekin eta botoarekin. Zentzu horretan, Herritarren Batzarrak eskura dituen mekanismo guztiak baliatuko ditu Podemoseko kide guztien hitzerako eta botorako eskubidea bermatzeko, eta dauzkan tresna guztiak erabiliko ditu horretarako, bai zuzenekoak (zirkuluak, elkarguneak, bozkatzeko lekuak plazetan eta parkeetan, eta beste), bai telematikoak (<http://plaza.podemos.info>, Loomio, Appgree, bozkatzeko plataforma seguruak, zuzenean eta modu presentzialean deliberatzeko espazioen emaldiak *streaming*-en, eta abar).

#### 11. artikulua. Xedea

Herritarren Batzarrari, Podemoseko erabaki-organo gorena den aldetik, kontsultatu egin beharko zaio, derrigorrean, garrantzi handiko erabakiak hartu aurretik (lerro estrategikoak jartzea, hautagai-zerrendak osatzea, programak egitea, organoetako kideak hautatzea edo kentzea, hauteskunderen aurretik edo ondotik itun bat onartzea edo errefusatzea, eta abar). Herritarren Batzarrak berak ere egin ahal izango du biltzeko deialdia -Batzarrera biltzeko deia Batzarrak berak egin-, bere ustez garrantzi berezia duten kontuak edo auziak sortzen direnean -Herritarren Batzar Berezi baterako deialdia egin dezake, adibidez, erakundearen egitura beste planteamendu batekin goitik behera berrantolatzeko ostera ere-.



## 12. artikulua. Herritarren Batzarraren osaketa

Podemosen izena emana duten pertsona guztiek (inskribatuek) osatzen dute Herritarren Batzarra.

Podemosen izena emateko 14 urtetik gora eduki behar dira, eta prest egon behar da proiektu honen eraikuntzan parte hartzeko. Bozkatzeko kode bat ere lortu behar da -iraunkorra izango da-.

Esteka honen bidez izena emango dute herritarrek Podemosen:

**<https://podemos.info/juntos-podemos/>**

Podemosen izena ematen duen pertsonak -inskribatuek- alderdian parte hartzeko eta sufragiorako (aktiboa eta pasiboa) eskubideak bereganatzen ditu, baina horrek ez du egiten Podemoseko afiliatu.

*Afiliatuen Liburuaren* parte izateko (Barne Ministerioan erregistratu behar da liburua, legeak hala eskatzen duenez), izena emana dutenek adinez nagusi direla adierazi beharko dute, Batzarraren ondoren, eta baimena eman beharko dute, berariaz eta espresuki, aipatutako *Afiliatuen Liburuan* erregistratuta egoteko; horrek, ordea, ez die ematen, beste inskribatuen aldean, inolako eskubiderik edo eginkizun pribilegiaturik, Podemosen parte hartzeko.

### **13. artikulua. Herritarren Batzarraren Eskumenak**

Estatu-mailako Herritarren Batzarra da erabaki-organo gorena Podemosen, eta, beraz, independentzia osoa du erabakiak hartzeko erakundearentzat garrantzi berezia duten auzi guztien gainean.

Edozein herrialdetako Batzarrak hartzen dituen erabakiak obligazioz bete beharrekoak dira, eta Batzarrak berak bakarrik baliogabetu ditzake erabaki horiek edo erakundearen antolaketan goragoko mailan dagoen beste Herrialde Batzar batek bestela (estatu-mailakoa, konparazio baterako):

**a)** Estatu-mailako Herritarren Batzarraren eskumen eskusiboak eta transferiezinak hauek dira:

- 1.** Podemosen politika orokorra zehaztea.
- 2.** Hauteskunde-zerrendak osatzea (lehenengo hautagaitik zerrendako azkeneraino), bozketa primario irekien bidez, kargu publikoetara aurkezteko, estatu-mailako instituzioetan.
- 3.** Hauteskuendeen aurretik edo ondotik edozein itun edo aliantza egitea, onartzea edo errefusatzeko, estatu-mailako instituzioei begira; herrialde edo eskualde batzuetan ere berak erabaki dezake alderdiaren aliantza-politika, egoera jakin batek hartaraturik, itun edo aliantza horiek Podemosen estrategia orokorrean eragina dutenean.
- 4.** Behin betiko programak onartzea hauteskuendeei begira (herritarren parte-hartzearen bidez eztabaida-prozesu bat izan ondotik eta bideragarritasun ekonomikoaren txosten baitezpadakoa jaso eta gero).
- 5.** Idazkari nagusia hautatzea eta kentzea.
- 6.** Herritarren Kontseilua -edo horko edozein kide- hautatzea eta kentzea.
- 7.** Berme Demokratikoen Batzordea -edo horko edozein kide- hautatzea eta kentzea.
- 8.** Estatutuak eta horien aldaketak onartzea.

**b)** Beste eskumen batzuk:

Aurreko puntuan jaso diren kontuak obligazioz eta nahitaez kontsultatu behar zaizkio Herritarren Batzarrari, kasu guztietan, estatutuek berariaz hala agintzen dutenez; baina hortik aparte, noiznahi egin ahal izango da Herritarren Batzarrerako deialdia, garrantzi berezia duen edozein auzi dela medio, eta obligazioz konplitu beharrekoak izango dira hor hartzen diren erabakiak.

### **14. artikulua. Herritarren Batzarrerako deialdia egiteko moduak**

Herritarren Batzarrerako deialdia egiteko modu hauek daude:

**a)** Modu automatikoa:

Herritarren Batzarraren eskumen eskusibo eta transferiezinei dagokien edozein auzitarako. Herritarren Kontseiluaren erantzukizuna da prozesuaren antolaketa teknikoa. Berme Demokratikoen Batzordeak begiratu du eskakizun hori behar bezala konplitzen dela.

**b)** Gainera, noiznahi edota modu iraunkorrean egin ahal izango da deialdia, garrantzizkoa irizten zaion edozein auzi tarteko dela:

Podemoseko organo edo kargu hauek egin ahal izango dute **herritarren kontsultarako** deialdia; eta derrigorrean konplitzekoak izango dira (inskrribatu guztientzat) hortik ateratzen diren emaitzak edo erabakiak:

1. Idazkari nagusiak.
2. Estatu-mailako Herritarren Kontseiluko gehiengo sinpleak.
3. Podemosen izena emana duten inskrribatuen %10ak edo balioetsitako zirkuluen %20ak (l. eranskinean adierazten da nola balioesten diren zirkuluak, eta hor datozen kondizioak bete beharko dituzte).

Podemoseko organo eta kargu hauek egin ahal izango dute **Kontsulta Indargabetzailerako** deialdia; eta obligazioz konplitzekoak izango dira (inskrribatu guztientzat) hortik ateratzen diren emaitzak edo erabakiak:

1. Idazkari nagusiak.
2. Estatu-mailako Herritarren Kontseiluko gehiengo absolutuak.
3. Podemosen izena emana dute inskrribatuen %20ak edo balioetsitako zirkuluen %25ak (l. eranskinean adierazten da nola balioesten diren zirkuluak, eta hor datozen kondizioak bete beharko dituzte).

Kontsulta indargabetzaileak aurretik hartutako erabakiak indar edo baliorik gabe uzteko egiten dira, eta era horretako deialdia egiteko auzitan dagoen karguak agintaldiaren erdia konplitua izan beharko du gutxienez.

Ezingo zaio kargu organiko bati prozedura indargabetzaile bat baino gehiago tramitatu agintaldiko; hortaz, kontsulta indargabetzailea egitekotan, bakarra egingo da karguko agintaldi bakoitzean.

Organo eta kargu hauek egin ahal izango dute **Herritarren Batzar Ezohikorako** deialdia (batzar presentziala, zuzeneko, izango da).

1. Idazkari nagusiak.
2. Estatu-mailako Herritarren Kontseiluaren 3/5eko gehiengo kualifikatuak.
3. Podemosen izena emana duten inskrribatuen %25ak edo balioetsitako zirkuluen %30ak (l. eranskinean adierazten da nola balioesten diren zirkuluak, eta hor datozen kondizioak bete beharko dituzte).

Hautesleek kontsulta-prozedura bati ekiteko asmoa agertzen badute, Kontsultaren edo Batzar Ezohikoaren txosten bat aukeratuko da, zeinak garantizatu beharko duen eztabaidarako proposamenak baduela, gutxienean, bi tekniko kualifikaturen abala.

## **15. artikulua. Herritarren Batzarra (Ohikoa edo Ezohikoa)**

Herritarren Batzar Ohiko edo Ezohiko baterako deialdia egin beharko da Estatu-mailan, Podemoseko oinarri eta printzipio politikoetan, etikoetan edo antolamenduarekin lotutakoetan aldaketa sakonak egin nahi badira, eta zuzenean eta aurrez aurre deliberatu eta eztabaidatu beharko da Batzar horretan aldatu nahi diren kontzeptuen gainean.



Estatu-mailako Herritarren Batzarretik Batzarrera ez dira hiru urte baino gehiago igaroko, inola ere. Behin epe hori igarotakoan -eta tartean besterik egin ez bada-, automatikoki egingo da Herritarren Batzarrerako deialdia, 14 a) artikulua agintzen duen bidetik. Modu horretan biltzen den Batzarrari **Herritarren Batzar Ohikoa** esango zaio.

Noiznahi egin ahal izango da Herritarren Batzar Ezohikoa, lehen esandako artikuluan zehazten diren mekanismoen arabera, eta Batzar Ohikoaren eskumen berberak izango ditu. Gutxienez urtebete igaro behar du **Herritarren Batzar Ezohiko** bat egiten denetik hurrena egiten den arte; ez da, beraz, halako batzar bat baino gehiago egingo urteko.

## **16. artikulua. Bozeramaileak**

Podemoseko kide guztiak izan daitezke bozeramaileak erakundearen egiturari, kasuan-kasuan daukaten kargu, maila edo posizioaren arabera: inskribatuak, kolaboratzaileak, Talentu Bankuko kideak, zirkulu bateko partaide aktiboak, lan-batzordeko edo arloko kideak, Herritarren Udal Kontseiluetako kideak, udal idazkariak, Erkidegoetako Kontseiluko kideak, arloetako arduradunak, Berme Demokratikoen Batzordeko arduradunak, idazkari nagusia eta kargu hautatuak. Nolanahi ere, kondizio eta eskakizun hauek konplitu beharko dituzte guztiek ere:

**a)** Argi eta garbi adierazi beharko dute zer kondiziotan eta zer karguren izenean egiten dituzten bozeramaile-lanak; eta inoiz ez dituzte gaudituko beren eskumen konkretuen esparruko mugak.

**b)** Podemoseko kide gisa egingo dituzte bozeramaile-lanak, eta, horrenbestez, erakundearen printzipio etiko eta politikoekin eta antolaketarekin lotutako oinarriekin bat eginda beteko dute beren funtzioa; eta kasuan-kasuan komunikazio-arloaz arduratzen diren pertsonekin koordinatuta lan egingo dute.

## **2. KAPITULUA. HERRITARREN KONTSEILUA**

### **17. artikulua. Herritarren Kontseiluaren osaera**

Herritarren Kontseilua, edo Estatu-mailako Herritarren Kontseilua, Podemoseko zuzendaritza politikoaren organoa da, eta eginkizun betearazle edo exekutiboak ditu. Herritarren Kontseiluaren parte diren sailek beteko dituzte, bakoitzaren erantzukizunaren esparruan, Eguneroko zer-regin betearazleak. Idazkari nagusiaren eginbeharra da arlo betearazleen arteko koordinazioa garantizatzea eguneroko lanean (Koordinazio Batzordearen laguntza izango du horretarako).

Herritarren Kontseiluak 81 kide izango ditu:

- Idazkari nagusiak beti parte hartuko du Herritarren Kontseiluan, eta gidari-lanak egingo ditu bileretan.
- 17 erkidegoetako idazkariak ere beti parte hartuko dute Herritarren Kontseiluan.
- Atzerrian bizi diren Podemoseko inskribatuak (alderdian izena emana dutenek, alegia) kide bat hautatuko dute Herritarren Kontseilurako.
- Herritarren Batzarrak 62 kide hautatuko ditu zuzenean Herritarren Kontseilurako, emakumeen eta gizonen arteko orekari eusteko irizpidea aintzat hartuz betiere.

## **18. artikulua. Herritarren Kontseiluaren eskumenak**

- Herritarren Batzarrak hartu dituen erabakiak aurrera eramatea eta garatzea (funtzio betearazleak ditu, beraz). Podemosen ildo politikoa indartzen saiatuko da beti bere jardunbidean.
- Herritarren Batzarrerako deialdia egitea beharrezko den guztietan: bai auzi jakin batzuek hala eskatzen dutenean, bai bestelako kontsultaren bat egin behar denean -«Herritarren Batzarra» kapituluan agertzen da nola jokatu halakoetan, kasuan-kasuan-.
- Garrantzi berezia duten auziak sortzen direnean, batzar-deialdia egitea herrialdean edo eskualde-mailan, beharrezko dela iritziz gero.
- Urteko ekitaldiaren aurrekontuak onartzea eta kontuak argi ematea (hala eta guztiz ere, Herritarren Batzarrak eska dezake, aurreikusita dauden prozedurei jarraituz, kontuak berrestea).
- Hauteskunde-kanpainetako eta Estatu-mailako kanpaina espezifikoetako aurrekontuak onartzea (hala eta guztiz ere, Herritarren Batzarrak eska dezake, aurreikusita dauden prozedurei jarraituz, kontuak berrestea).
- *Afiliatuen Liburua* lantzea eta aldizka eguneratzea, eta Datuak Babesteko Legeak eskatzen dituen betebeharrak guztiak konplitzen direla bermatzea.
- Txosten bat egitea, eztabaidatzea eta onartzea urteko kudeaketaren eta analisi politikoaren gainean. Urtero plazaratuko du.

## **19. artikulua. Herritarren Kontseilurako deialdia egiteko mekanismoak**

Noiznahi egin ahal izango da Herritarren Kontseilurako deialdia.

- a) Idazkari nagusiak proposatzen duenean.
- b) Herritarren kontseiluaren %25ak eskatzen duenean.
- c) Podemosen inskribatuen %10ak edo balioetsitako zirkuluen %10ak hala eskatzen duenean.

Herritarren Kontseiluaren osoko bilerak hiru hilabeteko tartearekin egingo dira gehienez ere, eta ezin da inola ere denbora hori baino gehiago pasatu bilera bat egiten denetik hurrenara arte. Idazkari nagusiak obligazioa du Herritarren Kontseilurako deialdia egiteko epe hori gainditu aurretik. Berme Demokratikoen Batzordeak begiratuko du agindu hori betetzen dela.


## **20. artikulua. Herritarren Kontseiluaren funtzionamendua**

Kontseilua arloka antolatuko da, eta arlo bakoitzak arduradun bat izango du.

Herritarren Kontseiluak arlo hauek izango ditu, gutxienez:

- **Estrategia- eta kanpaina-arloa.**
- **Analisi sozial eta politikoaren arloa.**
- **Azterketen eta programen arloa.**


- Hedatzearen, herrialde-antolaketaren eta zirkuluen arloa.
- Gizarte-harremanen eta mugimendu sozialen arloa.
- Parte-hartzearen arloa.
- Sare sozialen arloa.
- Prentsa-arloa.
- Justiziaren, kudeaketa publikoaren eta ustelkeriaren kontrako arloa.
- Eskubide sozialen arloa: hezkuntza, osasuna eta etxebizitza.
- Heziketa- eta kultura-arloa.
- Emakumearen eta berdintasunaren arloa.
- Gazteriaren arloa.
- Ekonomia-arloa.
- Ekologiaren eta ingurumenaren arloa.
- Nazioarteko harremanen arloa.
- Finantziario- eta gardentasun-arloa.



Arloko arduradunen eginkizuna lantaldeak sortzea da, eta horiek bere eginbeharrak efikaziaz betetzen dituztela begiratzea.

Herritarren Kontseiluak barne-funtzionamendurako bere arautegi propioa egingo du, gehiengo sinplez onartuko dena (hala eta guztiz ere, Herritarren Batzarrak eska dezake, aurreikusita dauden prozedurei jarraituz, arautegia berrestea).

Herritarren Kontseiluak, idazkari nagusiak hala proposatuta, Koordinazio Kontseilu bat sortuko du; 10-15 pertsona izango ditu, eta horren eginkizuna arloen arteko lana koordinatzea izango da, eta bere gain hartuko ditu funtzio betearazleak, Herritarren Kontseilua batzartuta ez dagoenean.



## **21. artikulua. Herritarren Kontseilua hautatzea**

Herritarren Batzarrak aukeratuko du, sufragio unibertsal zuzenaren bidez, idazkari nagusia, eta lehenbiziko bozketan gehiengoa lortzen duena izango da hautatua. Horren agintaldia hiru urtekoa izango da.

Erkidegoetako 17 idazkariak ere Herritarren Batzarrak aukeratuko ditu, sufragio unibertsal zuzenaren bidez, eta lehendabiziko bozketan gehiengoa lortzen dutenak izango dira hautatuak.

Atzerrian bizi diren Podemoseko kideek eta inskribatuek ordezkari bat aukeratuko dute sufragio unibertsal zuzenaren bidez. Atzerrian bizi eta Estatu-mailan Podemoseko erroldan izena emana dutenek berdin-berdin izango dute eskubidea atzerriko hauteskundeetan parte hartzeko.

Gainerako 62 kideak zerrenda irekien sistema baten bidez aukeratuko dira (zerrendek ez dute zertan osoak izan). Boto-emaile bakoitzak hautatu beharreko postu adina hautagairen alde bozkatu ahal izango du (ez zerrendako ordenari jarraituz, nahitaez). Boto gehien jasotzen duten 62 pertsonak izango dira Herritarren Kontseiluko kide; nolahi ere, emakumeen eta gizonen arteko parekotasunari eutsiko zaio beti. Kide horien agintaldia hiru urtekoa izango da. Herritarren Kontseiluko 62 kideak erreferendum bidez kendu ahal izango dira kargutik. Herritarren Kontseiluko kide bat kargutik kentzeko beharrezkoa izango da hauteskunde-prozesu bati ekitea, eta horretan hasteko Podemosen inskribatuta dauden pertsonen %20ak edo balioetsitako zirkuluen %25ak idatzi bat aurkeztu beharko du horren alde, abal gisa. Herritarren Kontseilua, modu kolegiatuan jardunez, arduratuko da hauteskundeak antolatzeaz, kide hori kargutik kentzeko; eta Kontseiluko kidea hautatu zuten boto-emaileen artean -hau da, hautesle-esparru beran- egingo da bozketa. Erreferendum horiek pertsona indibidualak, banakoak, kargutik kentzeko izango dira beti.

## **22. artikulua. Zirkuluen eta Herritarren Batzar eta Kontseiluen artean komunikazioa bideratzeko prozedurak**

**a)** Herrialdeetako zirkuluek kontsulta-eskaerak egin eta proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte berei dagokien herrialdeko Herritarren Batzarrean, prozedura hauen bidez (I. eranskinean zehazten dira):

- 1.** Proposamen bat aurkeztu beharko dute, idatziz, gaian kualifikatuak diren hiru teknikariren abalarekin, gutxienez.
- 2.** Herrialdeetako zirkuluen gehiengo sinpleak -gutxienez%20ak- onartu beharko du proposamena.
- 3.** Gutxienez, herrialdeko zirkuluen %20ak edo inskribatuen %10ak abala eman beharko dio proposamenari.

Herritarren Kontseiluek behar diren mekanismoak jarri beharko dituzte zirkuluen ekimenak -herrialde jakin batean sentsibilitate handikoak diren auziei buruzkoak bereziki- kontseilura iristen direla garantizatzen, zuzeneko harremanen bidez edota online.

Herrialdeetako Zirkuluek proposamenak egin eta eztabaidarako deialdiak egin ahal izango dituzte gai jakin batzuen gainean, Herritarren Kontseiluetan, prozedura hauen bidez (II. eranskinean zehazten dira).

Eztabaidarako proposamen bat aurkeztu beharko dute, idatziz, gaian kualifikatuak diren hiru teknikariren abalarekin, gutxienez.

Herrialde bateko Kontseiluko Zirkuluek, gutxienez,%10eko gehiengo sinplez onartu beharko dute proposamena.

Herrialde bateko Kontseiluko Zirkuluen %10ak edo inskribatuen %5ak, gutxienez, abala eman beharko dio proposamenari.

Herritarren kontseiluek, deliberazio-prozesuko parte diren aldetik, kontsulta egin beharko diete, derrigorrean, herrialdeetako zirkuluei, garrantzi handiko gaiak aztertzen direnean.

#### **b) Zirkulu Sektorialak**

Zirkulu Sektorialek proposamenak egin eta kontsultarako eta eztabaidarako deialdiak egin ahal izango dituzte edozein herrialdetako Herritarren Batzarrean, prozedura hauen bidez (I. eranskinean zehazten dira):

Proposamen bat aurkeztu beharko dute, idatziz, gaian kualifikatuak diren hiru teknikariren abalarekin, gutxienez.

Sektoreko zirkuluaren 3/5eko gehiengo kualifikatuz onartu beharko da proposamena.

Kasuan kasuko herrialdeko zirkuluen %20ak edo inskribatuen %10ak, gutxienez, abala eman beharko dio proposamenari.

Sektore jakin batean (horri dagozkion gaien inguruan), lan egiten duten Kontseiluetako Arloek behar diren mekanismoak jarri beharko dituzte, Zirkulu Sektorialek gai horiei buruz egiten dituzten ekimenak aipatutako Arloetara eramaten dituztela garantizatzeko, bai zuzeneko bileretan, bai online. Ekimenei gai espezializatuak buruzkoak izan behar dute, eta interes berezia izan behar dute hala Zirkuluentzat nola Herritarren Kontseiluetako Arloentzat.

Zirkulu Sektorialek proposamenak egin eta eztabaidetarako deialdiak egin ahal izango dituzte gai espezializatuen gainean, prozedura hauen bidez (II. eranskinean zehazten dira):

- 1.** Proposamen bat egin beharko dute, idatziz, gaian kualifikatuak diren bi teknikariren abalarekin, gutxienez.
- 2.** Zirkulu Sektorialaren gehiengo sinplez onartu beharko dute proposamena.
- 3.** Zirkuluen %10ak edo Herritarren Kontseiluko herrialdean inskribatutako pertsonen %5ak, gutxienez, babesa eman beharko dio proposamenari.

Herritarren Kontseiluak, deliberazio-prozesuko parte den aldetik, kontsulta egin beharko die, derrigorrean, Zirkulu Sektorialei, bere eskumeneko diren gai espezializatuetan.

## **3. KAPITULUA. IDAZKARITZA NAGUSIA**

### **23. artikulua. Eskumenak**

Idazkari nagusiaren eskumenak eta eginkizunak hauek izango dira:

- Alderdiaren ordezkari politiko eta instituzional moduan jardutea.
- Herritarren Kontseiluaren koherentzia estrategikoa, barne-antolaketaren batasuna eta arlo betearazleen arteko koordinazioa segurtatzea.

- Herritarren Kontseiluko eta Koordinazio Kontseiluko mahaiburu eta gidari izatea.
- Herritarren Batzarreko deialdia egitea, bai derrigorrezko auzietarako, bai beste edonolako kontsulta egiteko ere, «Herritarren Batzarra» atalean zehazten den prozeduraren arabera.
- Garrantzi berezia duten auzietarako batzar baterako deialdia egitea, edozein herrialdetan edo lurralde-esparrutan, beharrezko dela irizten dionean.

#### **24. artikulua. Idazkari nagusia hautatzea**

Podemoseko Herritarren Batzarrak (inskrribatu guztiek) hautatuko du idazkari nagusia, sufragio libre eta zuzenekoaren bidez.

Idazkari nagusia kargutik kendu ahal izango da horretarako propio deitutako erreferendum baten bidez. Kargutik kentzeko bozketa-prozesua hasteko, Podemosen izena emana duten pertsonen %20aren abala aurkeztu behar da, gutxienez.

Hiritarren Kontseilua, modu kolegiatuan jardunez, arduratuko da idazkari nagusia kargutik kentzeko hauteskunde-prozesua antolatzeaz; bozketa horiek idazkari nagusia hautatua izan zen hauteskunde-gorputz edo esparru berean egingo dira (hau da, hautatu zuten esparru bereko hautesleek bozkatuko dute horietan).

#### **25. artikulua. Koordinazio Kontseilua**

Koordinazio Kontseiluaren eginkizuna idazkari nagusiari laguntza ematea da, lantalde horren babesa izango baitu bai kanpora begirako eginbehar publikoetan, bai barruko lanetan (koordinazioaren ingurukoak, batez ere).

Koordinazio Kontseiluak 10-15 kide izango ditu, eta Herritarren Kontseiluak hautatuko ditu, idazkari nagusiak proposatuta.

Koordinazio Kontseiluak hainbat idazkaritza izango ditu bere barruko antolaketan, eta Herritarren Kontseiluak sortuko ditu horiek guztiak, idazkari nagusiak hala proposatuta.

Idazkari nagusiak, Herritarren Kontseiluko gehiengo absolutuak, edo Herritarren Batzarrak (erreferendum bidez beti) beren kargutik kendu ahal izango ditu Koordinazio Kontseiluko kideak. Koordinazio Kontseiluko kide bat kargutik kentzeko, bere agintaldiaren barruan, Podemosen inskrribatuak diren %20aren edo balioetsitako zirkuluen %25aren abala aurkeztu behar da, gutxienez. Herritarren Kontseiluak, modu kolegiatuan jardunez, arduratuko da hauteskunde-prozesua antolatzeaz. Erreferendumak pertsona indibidualak, banakoak, kargutik kentzeko izango dira beti.

## **4. KAPITULUA. BERME DEMOKRATIKOEN BATZORDEA**

#### **26. artikulua. Definizioa**

Berme Demokratikoen Batzordearen eginkizuna da Podemosen inskrribatutako guztien eskubideak errespetatzen direla begiratzea eta erakundearen oinarrizko printzipioak eta funtzionamendu-arauak guardatzea.

## **27. artikulua. Osaketa eta kideak hautatzea**

Berme Demokratikoen Batzordeak 5 kide titular eta ordezeko 5 kide izango ditu; kide guztiak zuzenean hautatuko ditu Herritarren Batzarrak, zuzeneko botoen bidez, zerrenda irekien sistemaz baliaturik (zerrendek ez dute zertan osoak izan). Boto-emaile bakoitzak hautatu beharreko postu adina hautagairen alde bozkatu ahal izango du (ez zerrendako ordenari jarraituz, nahitaez). Boto gehien jasotzen dituzten 10 pertsonak izango dira Berme Demokratikoen Batzordeko kideak (5 titular eta 5 ordezeko). Berme Demokratikoen Batzordeko kideen erdiek, gutxienez, (titularrak eta ordezekoak kontuan hartuta) jurista edo legelari izan beharko dute. Osoko bileretan, legelari izan beharko dute bost kideetatik bik gutxienez.

## **28. artikulua. Berme Demokratikoen Batzordearen eginbeharrak**

Berme Demokratikoen Batzordeak Kode Etikoa konplitzen dela begiratuko du, bere herrialdean edo lurralde-esparruan. Herrialde edo esparru guztietako berme demokratikoen batzordeek, estatu-mailako batzordearekin batera, arautegi bat adostu ahal izango dute printzipio etiko konkretu batzuen gainean, bai eta egoera jakin batzuetan, premia batzuei erantzuteko beharra sortzen denean ere -konparazio baterako, hauteskunde primarioetarako zerrenda batean sartu nahi duten pertsonen kondizio jakin batzuk bete ditzaten eskatu beharko zaie, aldez aurretik; eta beste hainbeste egin beharko da, hauteskundeen ondoren, Podemoseko kide moduan edonolako kargua hartu dutenekin ere-.

## **29. artikulua. Funtzionamendua**

Berme Demokratikoen Batzordeak ofizioz jardungo du, baina jardun dezake inskribatutako kideren batek edo alderdiko organoren batek hala eskatzen duenean ere; prozedura arin eta malgu baten bidez egingo da eskaera, eta txosten batean idatziz jasota geratuko da beti. Estatutuetako espirituari jarraituz, behar diren erabakiak hartuko ditu printzipio etikoen dokumentuaren edukiak eta aurrez ezarritako arautegiak eta akordioak behar bezala konplitzen direla bermatzeko; era berean, demokraziarekin, gardentasunarekin eta Podemosen markaren ezaugarriekin bat datozen printzipioak garantizatuko ditu, zuzenbidearen oinarri nagusietan funtsaturik. Horren egitekoa izango da Koordinazio Kontseiluari edo dagokion Herritarren Batzarrari zuzendutako erabaki bat onartzea, baliogabetzea edo proposatzea, bere eskumenen esparruaren barruan betiere.

Berme Demokratikoen Batzordearen ebazpenak eta erabakiak ezingo dira apelatu. Ebazpenetan argi eta garbi adierazi behar dira zer-nolakoak izango diren horien ondorioak, eta noiz sartuko diren indarrean.

Berme Demokratikoen Batzordeak ezarri ahal izango ditu, aldez aurretik, beste prozedura eta arautegi batzuk -publikoak eta adierazitako printzipioekin bat datozenak-, ahalik eta modurik ordenatuenean arautzeko eta bideratzeko bere jardunbidean sor daitezkeen alderdi batzuk, eta bere lana eta herrialde-mailako edo beste esparruetako berme demokratikoen batzordeena bateratzeko.



# III. IZENBURUA: HERRIALDE-EGITURA

## 30. artikulua. Oinarrizko printzipioak

Berdinak izango dira Podemosen egitura Estatuko herrialdeetan eta tokian-tokian eta organizazioaren barruko antolaketa-eredua estatu-mailan.

- 100 inskribatu baino gehiago dauzkaten herrialdeek, erkidegoek, uharteek eta udal-erriek Herritarren Batzarra, Herritarren Kontseilua eta Idazkaritza Nagusia edukiko dituzte.
- Podemosen ordezkaritza juridikoa, herrialde edo toki jakin batean, herrialde edo toki horretako Herritarren Kontseiluaren eta kasuan kasuko idazkari nagusiaren esku egongo da.
- Herrialde eta erkidegoetako organoek Berme Demokratikoen Batzordea edukiko dute, eta horrek tarteko instantzia jurisdikzional gisa jardungo du herrialde horretako gatazken konponbidea bizkortzeko. Nolanahi ere, beti onartu beharko du Berme Demokratikoen Batzordea dela errekurtsua jartzeko azken instantzia.
- 100 inskribatutik beherako udal-erriek Herritarren Batzarra eta Idazkaritza Nagusia edukiko dituzte. Lehenengoak eskumena izango du Herritarren Kontseilua edo beste egituraren bat sortzeko, barne-funtzionamendurako.

## 1. KAPITULUA. HERRIALDEETAKO HERRITARREN BATZARRAK

### 31. artikulua. Herritarren Herrialde-Batzarren osaketa (Udal- eta Erkidego-mailan)

Herritarren Batzarrak, udal-, erkidego- eta herrialde-mailan, esparru horietan Podemosen inskribatuta dauden pertsonen osatuko dituzte.

Podemoseko organoek behar diren mekanismoak jarri beharko dituzte, kide guztiei hitzerako eta botorako eskubide garantizatzeko herrialdeetako eta tokian tokiko Herritarren Batzarretan (parte-hartzeko eta botoa emateko tresnak, emanaldiak *streaming*-ean deliberazio-uneak zuzenean jarraitzeko, bozketa-puntu ez-telematikoak, etab.).

Etenik gabe egingo dira herrialdeetako eta tokian tokiko Herritarren Batzarretarako deialdiak, horien eskumen eskusibo eta transferezinen barruan dauden auziei heltzeko; horrenbestez, noiznahi egingo da Batzarrerako deialdia garrantzi berezia duten arazo edo auziez jarduteko.

### 32. artikulua. Herritarren Herrialde Batzarren Eskumenak

Herritarren Herrialde Batzarra, edo tokian tokikoa, da Podemosek herrialde eta toki horretan duen erabakitzeko organo gorena; horrenbestez, autonomia izango dute erabakiak hartzeko, herrialde edo toki horretan erakunde osoarentzat garrantzi berezia duten auziei buruz, non eta erabaki horiek Podemosen printzipio nagusiak urratzen ez dituzten eta erakundearen antolaketan goragoko mailan dagoen Herritarren Batzarren baten erabakiei kontra egiten ez dieten.

Herritarren Herrialde Batzarrak, edo tokian tokikoak, hartzen dituen erabakiak bete beharrekoak izango dira, eta ezingo ditu horiek atzera bota Herrialde edo toki horretako Herritarren Batzarrak berak edo antolaketan goragoko mailan dagoen Herritarren Batzarren batek baino.

Herrialde edo toki bateko Herritarren Batzarraren onspena jaso ez duen organorik ez dela sortzen begiratu beharko du, eta segurtatu beharko du, halaber, organo guztiak Podemosen printzipio nagusien arabera gobernatzen direla, printzipio horiek Estatu-mailako Herritarren Batzarrean erabaki zirenez.

### **33. artikulua. Herrialdeetako eta tokian tokiko Herritarren Batzarren eskumen eskusiboak eta transferiezinak**

Hauek izango dira herrialdeetako eta tokian tokiko Herritarren Batzarren eskumen eskusiboak eta transferiezinak:

- 1.** Podemosen programaren printzipioak herrialde edo toki horretara nola egokitu behar diren erabakitzea.
- 2.** Hiritarrei irekitako bozketa primarioen bidez, hauteskunde-zerrendak osatzea (lehenengo hautagaitik zerrendako azkeneraino) kargu publikoetara iristeko, herrialde horretako instituzioetan.
- 3.** Hauteskunderen aurretik eta ondotik edozein itun edo aliantza onartzea edo errefusatzea, herrialde horretako instituzioetara iristeko helburuarekin, antolaketan goragoko mailan dauden batzarrek onartutako printzipio nagusiak aintzat hartuz betiere.
- 4.** Hauteskundeetarako behin betiko programak onartzea (herritarrek programaren lanketa-prozesuan parte hartu, eta bideragarritasun ekonomikoaren txosten baitezpadakoa jaso ondoren), betiere antolaketan goragoko mailan dauden batzarretan onartutako printzipio nagusiak aintzat hartuz.
- 5.** Herritarren Kontseilua hautatzea herrialderako, zerrenda irekien sistema baten bidez (gizonen eta emakumeen arteko orekari eutsiz beti). Herrialdeko Herritarren Kontseiluak alderdiaren organo gorena da, Herrialdeetako Batzarretik Batzarrera bitartean.
- 6.** Herritarren Herrialde-Kontseiluko kide bat kargutik kentzea.
- 7.** Herritarren Herrialde-Kontseiluaren eginkizunak definitzea.
- 8.** Herrialdeko idazkari nagusia hautatzea eta kargutik kentzea, zuzeneko hauteskunde-sistema baten bidez, eta horren eginkizunak definitzea.
- 9.** Berme Demokratikoen Batzordeko partaideak (edo Erkidegoetako Herritarren Batzarren kasuan, horko edozein kide) hautatzea eta kargutik kentzea.
- 10.** Herrialdeetako antolaketa-arauegiak onartzea eta horietan moldaketak egitea.
- 11.** Eginkizunak definitzea eta Zirkulu Sektorialen arteko koordinazio-modua zehaztea (udalerrri-mailatik beherako Zirkuluen artekoa ere bai, halakorik balego).
- 12.** Eginkizunak definitzea eta beste herrialdeetako Herritarren Batzar edo Kontseiluekiko koordinazio-modua zehaztea.

### **34. artikulua. Herrialdeetako eta tokian tokiko Herritarren Batzarretarako deialdiak egiteko mekanismoak**

**a)** Herritarren Batzarrerako deialdia automatikoki egingo da eskumen eskusibo eta transferiezinei dagozkien auziak eztabaidatu eta behar diren erabakiak hartzeko horren inguruan. Herritarren Kontseilua arduratuko da da prozesuaren antolaketa teknikoaz.

**b)** Noiznahi edota modu iraunkorrean egingo da Herritarren Batzarrerako deialdia, garrantzi handikoak kontsideratzen diren bestelako auziak sortzen direnean.

Kargu eta organo hauek egin ahal izango dute **Herritarren Kontsultarako** deialdia (herrialdeko inskribatu guztiek nahitaez bete beharko dituzte hortik ateratzen diren ondorioak eta erabakiak).

1. Idazkaritza nagusiak.
2. Esparru horretako edo maila horretatik goragoko Herritarren Kontseiluko gehiengo sinpleak.
3. Inskribatutako pertsonen %20ak edo herrialde horretan balioetsitako zirkuluen %20ak, gutxienez.

Kargu eta organo hauek egin ahal izango dute ordezkari bat **Kargutik Kentzeko Kontsultadeialdia** (inskribatu guztiek nahitaez bete beharko dituzte hortik ateratzen diren ondorioak eta erabakiak).

1. Idazkari nagusiak.
2. Herritarren Kontseiluko gehiengo absolutuak -Estatu-mailakoak zein herrialde horretakoak-.
3. Inskribatutako pertsonen %25ak edo herrialde horretan balioetsitako zirkuluen %25ak, gutxienez.

Kargu eta organo hauek egin ahal izango dute **Herritarren Batzar Ezohiko** baterako deialdia (**presentziala**).

1. Idazkari nagusiak.
2. Herritarren Kontseiluko 3/5eko gehiengo kualifikatuak -herrialde horretakoak edo goragoko maila batekoak-.
3. Podemosen inskribatutako pertsonen %35ak edo herrialde horretan balioetsitako zirkuluen %35ak, gutxienez.

Herrialde bateko edo beste esparruren bateko hautesleak kontsulta-prozedura egiten hasiko balira, Kontsulta/Batzar Ezohikoaren ponentzia bat hautatuko da, eta horrek bermatu egin beharko du eztabaidarako proposamenak gaian kualifikatuta dauden bi teknikariren abala izango duela, gutxienean.

Nolanahi dela ere, herrialdeko Batzarrak beste mekanismo batzuk ezarri ahal izango ditu deialdia egiteko.

### **35. artikulua. Herritarren Herrialde-Batzarra (Ohikoa eta Ezohikoa)**

Herrialdeetako eta tokian tokiko antolaketa-arauegietan aldaketa sakon samarrak egiteko eta zuzendaritzako organoak bere osoan hautatzeko, Herritarren Batzarrerako (Ohikoa edo Ezohikoa) deialdia egin beharko da, Herrialde-, Erkidego- edo Udal-mailan, eta deliberazioak aurrez aurre egiteko aukera izango da.

Herrialde-mailan eta tokian tokian Herritarren Batzar bat egiten denetik hurrengo egin artean, ez dira, inoiz eta inola, hiru urte baino gehiago pasatuko. Behin epe hori igarotakoan, automatikoki egingo da deialdia herrialde bateko edo tokian tokiko Herritarren Batzarrera. Herrialde edo toki bateko Herritarren Kontseilua arduratuko da prozesuaren antolaketa teknikoaz; Berme Demokratikoen Batzordeak begiratu du eskakizun hori behar bezala konplitzen dela. Modu horretan deituta egiten den Batzarrari **Herritarren Herrialde-Batzar Ohikoa (Udal-, Erkidego- edo Herrialde-mailakoa)** esango zaio.

Aurreko artikuluan adierazi diren mekanismoei jarraituz, noiznahi egin ahal izango da deialdia Herrialde bateko edo tokian tokiko **Herritarren Batzar Ezohikora**, eta eskumen berberak izango ditu. Ez da, inoiz eta inola, urtebete baino gutxiago pasatuko Herrialdeko eta tokian tokiko Herritarren Batzar Ezohiko bat egiten denetik hurrengo egin artean.

### **36. artikulua. Ezohiko betebeharrak Herritarren Herrialde-Batzarrek erabakiak hartzeko jarraitu behar dituzten prozeduretarako**

Herrialdeetako eta tokian tokiko Herritarren Batzarrek bere eskumenekoak diren gaiei buruz bakarrik hartu ahal izango dituzte erabakiak, berez; hala ere, badira salbuespenak, eta inoiz erabakiak hartu ahal izango dituzte garrantzi berezia duten gaiei buruz, baldin eta bozketa-prozesuak baldintza hauek betetzen baditu:

- Herrialde batean, Podemosen inskribatu diren pertsonen %10, gutxienez, horren alde badago.
- Bozketa-prozesua martxan jartzen bada -telematikoa, ezinbestean-; horretarako, kondizio batzuk bete behar dira: behar bezala eman beharko da auziaren berri; kasua publiko egin beharko da, eta eztabaidarako epe bat zabaldu beharko da botoa eman aurretik.
- Bozketa-prozesu horietan, tokian tokiko Herritarren Batzarraren esparruan inskribatuta daudenek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

Herrialde edo toki bateko Herritarren Batzarrak eta Kontseiluak baldintza horiek bete ezean, kontsulta egin beharko zaio antolaketan goragoko mailan dagoen Herritarren Kontseiluari, erabakitze-prozesuarekin aurrera jarraitzekotan, eta Herritarren Batzar Ohikoak (presentziala) baietza eman beharko du.

### **37. artikulua. Herritarren Herrialde-Kontseiluak (Udal-, Uharte-, Erkidego- eta Herrialde-mailakoak)**

a) Osaketa:

1. Herritarren Kontseilua da Podemoseko zuzendaritza politikoaren organoa herrialde edo toki batean.
2. Herrialde edo toki bateko Herritarren Batzarrak, bere funtzionamendu-arauen konstituzioan, definituko dute zenbat kidek osatuko duten Herritarren Kontseilua herrialde edo toki horretan.

**3.** Idazkari nagusia Herritarren Batzarreko buru izango da, bere karguarekin doanez, eta berak gidatuko ditu bilerak.

**b)** Eskumenak:

**1.** Herritarren Batzarrak onartu dituen erabakiak gauzatzea, funtzio betearazleekin; era berean, aurrera eramango ditu, tokian tokian, Podemosen ildo politikoa indartzera bideratuta dauden erabakiak.

**2.** Herrialde bateko edo tokian tokiko Herritarren Batzarrera dei egitea, hala nahitaezkoak diren auziei heltzeko, nola beste edozein kontsulta egiteko, «Herritarren Herrialde-Batzarrak» ataleko prozedurei jarraituz.

**3.** Beheragoko mailan dagoen edozein Batzarrera dei egitea, garrantzi berezia duten auzietarako, hala komeni dela iritziz gero.

**4.** Urteko aurrekontua onartzea eta kontuak garbi ematea (nolanahi ere, Herritarren Batzarrak eska dezake, aurreikusita dauden prozeduren arabera, horiek berrestea).

**5.** Hauteskunde-kanpainetako aurrekontuak onartzea; era berean, ontzat eman beharko ditu, estatu-mailako edo herrialdeetako kanpainei begira, herrialde edo toki horretan egiten diren jarduera espezifikoak.

## 2. KAPITULUA. HERRITARREN HERRIALDE-KONTSEILUAK

### **38. artikulua. Herritarren Kontseilurako deialdia egiteko mekanismoak**

Noiznahi egin ahal izango da Herritarren Herrialde-Kontseiluetarako deialdia. Era hauek daude horretarako:

**a)** Idazkari nagusiak hala proposatuta.

**b)** Herrialde bateko edo tokian tokiko Herritarren Kontseiluaren %25ak, gutxienez, hala eskatuta.

**c)** Herrialde horretan edo tokian tokian, Podemosen inskribatuta dauden kideen %10ak edo esparru horretako Zirkuluen %10ak, gutxienez, hala eskatzen duenean. Ez dira, inoiz eta inola, hiru hilabete baino gehiago pasatuko, herrialde batean edo tokian tokian, Herritarren Kontseiluko osoko bilera bat egiten denetik hurrena egin artean. Idazkari nagusiaren betebeharra da, epe hori gainditu aurretik, Herritarren Kontseilurako deialdia egitea.

### **39. artikulua. Herrialdeko eta tokian tokiko Herritarren Kontseiluaren funtzionamendua**

Herrialde bateko edo tokian tokiko Herritarren Kontseiluak bere arau propioak egingo ditu barne-funtzionamendurako (nolanahi ere, Herritarren Batzarrak eska dezake, aurreikusita dauden prozeduren arabera, horiek berrestea).

### **40. artikulua. Herrialdeko eta tokian tokiko Herritarren Batzarra hautatzea**

Herritarren Batzarrak hautatuko du idazkari nagusia, zuzeneko sufragio unibertsalaren bidez.

Gainerako kideak zerrenda irekien sistema baten bidez aukeratuko dira; nolanahi ere, gizonen eta emakumeen arteko orekari eutsiko zaio beti.

### 3. KAPITULUA. HERRIALDEKO ETA TOKIAN TOKIKO IDAZKARITZA NAGUSIA

#### 41. artikulua. Herrialdeko Idazkaritza Nagusia (Udal-, Erkidego- eta Herrialde-mailakoa)

##### a) Eskumenak:

- Bera da alderdiaren ordezkaritza politiko eta instituzionalaren arduraduna, herrialde edo toki horretan.
- Herrialde bateko edo tokian tokiko Herritarren Batzarrera dei egitea, hala nahitaezkoak diren auziei heltzeko, nola beste edozein kontsulta egiteko, «Herritarren Herrialde-Batzarrak» ataleko prozedurei jarraituz.
- Beheragoko mailan dagoen edozein Batzarrera dei egitea, garrantzi berezia duten auzietarako, hala komeni dela iritziz gero.

##### b) Herrialde bateko edo tokian tokiko idazkari nagusia aukeratzea.

Herrialde edo toki batean Podemosen inskribatuta dauden kide guztiek aukeratuko dute bertako idazkari nagusia, eta esparru horretako Herritarren Batzarrean hautatuko dute sufragio unibertsal libre eta zuzenekoaren bitartez. Botorako eskubidea, presentziala zein telematikoa, garantizatuko da.

# IV. IZENBURUA: ZIRKULUAK

## 1. KAPITULUA. HELBURUAK ETA DEFINIZIOAK

### **42. artikulua. Zirkuluaren definizioa**

Zirkuluak boluntarioen elkarte irekiak dira, eta, demokraziaren errespetuan, duintasunean eta giza eskubideetan oinarriturik, eraldaketa soziala eragin nahi duten pertsonak biltzen dira horietara.

Zirkuluak Herritarren Kontseiluekin eta Batzarrekin harremanetan jartzeko formulek bat etorri beharko dute Estatutuetan ezarrita dauden lege eta arauekin, eta herrialde-mailan edo tokian tokian Batzar bakoitzak har ditzakeen erabakiekin.

Zirkuluak dira garantiarik onena Podemoseko organoak eta kargu publikoak kontrolatzeko, eta ustelkeria, azpijokoak eta kontu ilunak argitara ateratzeko, bai eta parte-hartzea bultzatzeko eta prozesu guztien bermearen alde egiteko ere.

### **43. artikulua. Herrialdeetako eta tokian tokiko zirkuluei buruz**

Zirkuluek autonomia izango dute antolaketa-formulak aukeratzeko, beren eskumen eta ahalen arabera; nolana ere, Estatutu hauek eta herrialde-mailako Herritarren Batzar eta Kontseiluetako arauak aintzat hartu eta errespetatuko dituzte beti.

### **44. artikulua. Zirkuluen sorrerari buruz**

Herrialdeetan edo beste esparru txikiagoetan Zirkuluak sortzeko, batzar konstituziogile bat egin beharko da, eta herrialde edo esparru horretan Podemosen inskribatuta dauden pertsonen % 1ak hartu beharko du parte, gutxienez, batzar horretan -edonola ere, 5 pertsona behar dira, gutxienean, Zirkulu bat sortzeko-.

Auzoa izango da Zirkulu bat sortzeko esparrurik txikiena.

Akta konstituziogile batean jasoko dira Zirkuluak, bere funtzionamendua arautzeko, erabakitzen dituen prozedurak -nolana ere, Estatutu hauetan adierazten diren prozedurak ere sartuko dira akta horretan-.

Herrialdeetako eta tokian tokiko Zirkuluek prozedura eta araubide jakin batzuk izango dituzte funtzionatzeko eta beste Zirkuluekin koordinatzeko, eta prozedura horiek antolaketan maila berean edo hurrengo mailan gorago dagoen Batzarrek edo Kontseiluak ezarriko ditu.

### **45. artikulua. Bikoiztasun ezaren printzipioa**

Podemoseko Zirkulu bakarra egongo da herrialde edo toki batean; ezin da bat baino gehiago egon.

Arrazoi bat edo beste dela kausa, herrialde edo toki batean bi zirkulu agertuz gero, Hedatze-Arloak entzun egingo ditu bi Zirkuluen arrazoibideak, eta behar diren neurriak hartuko ditu aferari irtenbidea emateko. Hartzen den erabakiaren kontra errekurtsioa jarri ahal izango da Berme Demokratikoen Batzordean, eta horrek, bi aldeen arrazoiak entzun ondoren, behar diren erabakiak hartuko ditu, horretarako propio ezarrita dagoen prozeduraren bidez.

#### **46. artikulua. Balioesteko garantiak**

Berme Demokratikoen Batzordeak segurtatu egin beharko du, hauteskundeei begira eskumenak eta ahalbideak dituzten Zirkuluak baliozkotzat jo aurretik, Estatutu hauetan jasotzen diren aginduak eta xedapenak zuzen konplitzen direla.

Berme Demokratikoen Batzordeak informazioa eskatu ahal izango die Zirkuluetako aktetan agertzen diren bozeramaileei, hautagaiei edo ordezkarietara, eta aldeztu aurretik ezarriko dituzten kasuan-kasuan, zuzenbidearen eta aukera politikoen printzipio nagusiekin bat datozen balioeste-arautegiak, bereziki bozketa primarioetan parte hartzeko sufragio pasiboari buruzkoak.

Baldin eta Berme Demokratikoen Batzordeak, Hedatze-Arloak, beste Zirkulu batzuek edota Podemoseko partaideren batzuek arrazoizko zalantzak badituzte Zirkulu baten bideragarritasunari eta jokabideei buruz, edo susmatzen badute, zantzu garbietan oinarriturik, Zirkulu horretako kideen edo bozeramaileen jardun eta proposamen batzuk ez datozela bat Estatutu hauetan jasotzen diren araubideekin eta guztiok ontzat hartzen ditugun printzipio etiko eta politikoenekin, orduan Berme Demokratikoen Batzordeak kontsulta egingo die Hedatze-Arloari, Zirkulu berari eta susmo eta zalantza horiek argitzeko interesa izan dezaketen instantzia guztiei, eta dokumentazio-espeditente bat zabalduko du zirkulua baliozkotzat jo ote daitekeen aztertzeko; azkenean, erabaki bat hartuko da, irmoa eta apelaezina, zirkulua onesteko edo ezeztatzeko.

Berme Demokratikoen Batzordeak hogeita hamar eguneko epearen barruan ebazpenik aurkeztu ez izana isiltasun administratibo positibotzat har daiteke, eta, beraz, Zirkulua baliozkotzat jotzeko modu bat izango da.

#### **47. artikulua. Balioetsitako Zirkuluen entitate juridikoari buruz**

Balioetsitako Zirkuluek entitate juridiko propioa izan dezakete alderdiaren egituraren barruan, administrazio eta finantza aldetik independente izan daitezkeen. Elkarrekin gisa edo alderdiaren Delegazio gisa izango dute nortasun juridikoa, baina bi kasuetan nortasun juridiko eta IFK propioarekin, lege-ordezkaritza propioarekin eta datu pertsonalen fitxategi propioarekin; eta, oro har, modu autonomoan beteko dituzte nortasun juridikoak berekin dakartzan betebeharrak.

Atzerrian bizi diren inskribatuen Zirkuluen kasuan, Koordinazio Kontseiluak, aldeztu aurretik eta Espainiako eta atzerriko legeak aintzat hartuz, ebaluatu beharko du nortasun juridiko horren bideragarritasuna.

Maila goragoko Koordinazio Kontseiluek Zirkulu horiekin kolaboratzeko moduak aholkatu eta eratuko dituzte, baina ez dituzte inoiz horien lege-betebeharrak beren gain hartuko.

Nortasun juridiko propioa izateak, nolana ere, behartu egingo ditu Zirkuluak nahitaez betetzera Podemoseko egiturek onartuak dituzten arau orokorrak, bereziki, gardentasun- eta finantziario-politikoari dagozkionak, eta maila bereko edo goragoko Herritarren Kontseiluaren onospena beharko du, horrekin koordinazioan hasi aurretik eta ondotik.

#### **48. artikulua. Zirkulu Sektorialei buruzkoa**

Podemoseko arlo programatikoetan edo arlo profesional ezagun eta errotuetan bakarrik sortu ahal izango dira Zirkulu Sektorialak edo Tematikokoak.

Zirkulu Sektorialeko sortze-helburuak hauek dira:



- Podemosen helburu berak edo antzekoak dituzten mugimendu sozialen, erakundeen eta pertsonen nahiak eta asmoak ardaztea eta bideratzea, politika publikoaren proposamen bihurtzeko.
- Podemosen eratzten diren erabaki-organoei edukiak eta orientabide teknikoak eta politikoak ematea, estrategia, ekimen eta programa konkretuen bidez; sektore jakin bateko eragile sozial eta instituzioei buruz dituzten ezagutza espezifikoa eta espezializatuak oinarritzat hartuz egingo dute hori.
- Podemoseko batzarretan eta zirkuluetan parte hartzea, edukiak eta eztabaidarako gaiak ekarriz; horiei buruzko ezagutzak zabaltzea, sentsibilizazioa handitzea eta jardunbiderako proposamenak sustatzea da helburua, bereziki gai sektorialetan eta transbertsaletan.
- Harremanetarako esparru egonkor bat, kanal bat eta tresna telematiko bat ezarriko dira Zirkulu Sektorialeko artean, horiei dagozkien gaietan, esparruetan edo sektoreetan.

Zirkulu Sektorialetako lana era honetan antolatuko da, lehentasuna emanez, hurrenez hurren:

- *Gizarteari zuzendutako* lanari: harremanak sendotu eta indartuko dira sektore bakoitzaren espezializazioarekin erlazioa duten eragileekin.
- *Podemosi bere osoan zuzendutako* lanari: Zirkuluei laguntza teknikoa eta politikoa emango diete, batera lan egiten duten konbergentziako esparruetan eta gaietan; eta beste hainbeste egingo dute Podemoseko ordezkariarekin, espezializazio-arlo konkretuarekin lotura duten esparruetan.
- *Zirkuluei berriaz zuzendutako* lanari: Zirkuluaren lana indartu eta hedatuko da helburu bertsuak eta gaitasun tekniko eta politiko osagarriak dituzten beste pertsona batzuekin.

#### **49. artikulua. Zirkulu Sektorialeko baliozkotzat jotzea**

Podemoseko Zirkulu Sektorialeko bat fundatzeko eta baliozkotzat jotzeko, beharrezkoa da sortze-agiri bat egitea eta argitaratzea 10 pertsonen abalarekin, gutxienez.

#### **50. artikulua. Zirkulu Sektorialeko bikoiztasun ezaren printzipioa**

Ezin da egon Podemoseko Zirkulu bat baino gehiago sektore-arlo batean. Hala ere, salbuespena egingo da arau horretan, sektore-arloek halako ezaugarri espezifikoa batzuk badituzte herrialde edo instituzio batzuetan.

#### **51. artikulua. Zirkulu Sektorialeko baliozkotzat jotzeko bermeak**

Berme Demokratikoen Batzordeak, Zirkulu Sektorialeko behin betiko baliozkotzat jo aurretik, segurtatu egingo du, komunikatzen zaionetik hogeita hamar egunera bitarteko epean, Estatutu hauetako aginduak eta xedapenak konplitzen direla.

## **2. KAPITULUA. ZIRKULUEN ESKUMENAK**

#### **52. artikulua. Herritarren Batzarrerako deialdiak egitea**

**a)** Balioetsi diren herrialdeetako Zirkuluek deialdiak egin ahal izango dituzte Herritarren Batzarrera edozein herrialdeetan edo lurralde-esparrutan, prozedura hauen bitartez:

1. Proposamen bat idatziz eginez, gaian kualifikatuak diren hiru teknikoren abalarekin, gutxienez.

2. Balioetsitako Zirkuluen %20ak edota herrialde edo lurralde-esparru horretan inskribatuak diren pertsonen %20ak, gutxienez, abala ematen badio proposamenari.

**b)** Zirkulu Sektorialek, beren aldetik, kontsulta-deialdiak egin ahal izango dituzte edozein herrialde edo lurralde-esparrutako Herritarren Batzarrerara, prozedura hauen bitartez:

1. Proposamen bat idatziz eginez, gaian kualifikatuak diren hiru teknikoren abalarekin, gutxienez.

2. Zirkulu Sektorialeko 3/5eko gehiengo kualifikatuak proposamena onartuz.

3. Balioetsitako Zirkuluen %20ak edota herrialde edo lurralde-esparru horretan inskribatuak diren pertsonen %20ak, gutxienez, abala ematen badio proposamenari

### **53. artikulua. Herritarren Batzarretan eztabaidak antolatzea**

**a)** Zirkuluek eskumena izango dute eztabaidarako deialdiak egiteko Herritarren Kontseiluetan.

**b)** Horretarako, Herritarren Kontseiluek behar diren mekanismoak jarri beharko dituzte, herrialdeetako eta lekuan lekuko Zirkuluek ekimenak -bereziki herrialde edo leku horretan garrantzi berezia duten auziei buruzkoak- Kontseilura eramaten dituztela ziurtatzeko, bai modu zuzenean, bai online.

**c)** Edonola ere, Herritarren Kontseiluek aintzat hartu beharko dituzte balioetsitako Zirkuluek eztabaida tematikoetarako egiten dituzten deialdiak. Prozedura hauen bidez egin ahal izango dituzte:

1. Proposamen bat idatziz eginez, gaian kualifikatuak diren bi teknikoren abalarekin, gutxienez.

2. Zirkuluen %10ak edota Herritarren Kontseiluari dagokion herrialde edo lurralde-esparruan inskribatutako pertsonen %10ak, gutxienez, abala ematen badio proposamenari.

### **54. artikulua. Ekimenak topagune tematikoetara eramatea**

Gai sektorialak aztertzen dituzten Herritarren Kontseiluko Arloek behar diren mekanismoak jarri beharko dituzte, Zirkulu Sektorialek gai espezifiko horiei buruz egiten dituzten ekimenak aipatutako Arloetara eramaten dituztela garantizatuzeko, bai zuzeneko topaguneetan, bai online.

### **55. artikulua. Eztabaida tematikoak antolatzea Herritarren Kontseiluetan**


Zirkulu Sektorialek eztabaida tematikoak antolatu ahal izango dituzte Herritarren Batzarretan. Prozedura hauen bitartez egin ahal izango dute deialdia:

1. Proposamen bat idatziz eginez, gaian kualifikatuak diren bi teknikoren abalarekin, gutxienez

2. Zirkulu Sektorialak proposamena gehiengo sinplez onartuz.

3. Balioetsitako Zirkuluen %10ak edota Herritarren Kontseiluari dagokion herrialde

edo lurralde-esparruan inskribatutako pertsonen %10ak, gutxienez, abala ematen badio proposamenari.



### 56. artikulua. Kontsultak bereziki bere eskumenekoak diren gaien gainean

Herritarren Kontseiluak, bere deliberazio-prozesuaren barruan, kontsultak egin beharko dizkie, nahitaez, Zirkulu Sektorialei horien eskumeneko diren gai espezializatuaren gainean.

### 3. KAPITULUA. ZIRKULUEN ANTOLAMENDUAREN OINARRIAK

#### **57. artikulua. Podemoseko Zirkulu batean parte hartzeko eskakizunak**

**a)** Podemoseko Zirkuluek ateak parez pare zabalik dituzte beti herritarren parte hartzea errezibitzeko. Ez da afiliatua izan beharrik, ez eta Podemoseko inskribatua ere, Zirkulu batean parte hartzeko.

**b)** Nolanahi ere -eta ez dator aurrean esandakoaren kontra-, ez dira inola ere onartuko, Zirkuluetan eta Podemoseko kide bakar baten aldetik, jarrera sexistak, xenofoboak, autoritarioak, homofoboak, iraingarriak eta umiliagarriak; ez dira ametituko akusazio mingarriak edo karikatidak, difamazioak eta gaizki-esaka aritzea inoren kontra; ez da onartuko inolako indarkeriarik -ez ahozkorik ez fisikorik- eta ezta ere giza eskubideen defentsaren kontra jarduterik ere, ez hitzez ez ekintzez.

**c)** Podemosen inskribatua dagoen edozein pertsonak eskatu ahal izango du bere herrialdeko Berme Demokratikoen Batzordearen laguntza -edo Estatu-mailakoarena hala behar izatera-, edozein Zirkulutan defendatzeko Estatutu honen nagusitasuna eta horren barruan adierazten diren funtsezko printzipioen lehentasuna, kontraesanak dituen idatzizko prozedura batean.

#### **58. artikulua. Zirkuluetan erabakiak hartzeko prozesuei buruz**

Zirkuluak burujabe dira eta eskumena dute bere herrialdean edo lurralde-esparruan erabakiak hartzeko, betiere erabaki horiek alderdiaren joeraren kontra ez badoaz eta koherenteak badira horren politika orokorrarekin, bereziki lurralde-ordezkaritzari dagokionez mailan berean edo gorago dauden organo hautetsien erabakiekin.

Zirkuluek etengabe landu behar dituzte harremanak gizarteko eragileekin, beren eginbeharren artean baitago horiekin komunikazio erraz eta jarraia izatea, sare sozialak ehuntzea eta, kasuan-kasuan lan egiten den esparruan, Podemoseko planteamenduekin sintonian dauden mugimenduetan parte hartzea eta horien eragina indartzea. Harreman hori segurtatzeko eta elkar aberasteko, zirkuluek, urtean behin bederen, Batzar edo Bilera Sozial batera dei egingo diete, ahal duten neurrian, herrialdeko edo tokian tokiko mugimendu sozialetan lan egiten duten eragileei.

Zirkuluek aldez aurretik, behar bezainbat denborarekin, egingo dituzte bilera presentzialetarako deialdiak eta garaiz ezagutaraziko dituzte egun horretan aztertzekotan diren gaiak. Botazioak egiten direnean, aktan jaso beharko dira, gutxienean, aldeko botoak, kontrakoak eta abstentzioak.

Batzar presentzialetan aurrez aurre hautatuko dira beti Zirkuluetako organoak, laneko guneak eta arloko edo lanen arduradunak, eta beti egon behar dute bilera horietan karguak eta egin-kizunak baliogabetzeko mekanismoek ere.

#### **59. artikulua. Erabakitzeko berme ezohikoak**

Balioetsitako Zirkuluek herritarrekin dituzten harremanak eta jende xehearekiko duten erantzukizuna garrantzi betekoak direla kontuan hartuz, ondoko erabaki hauek ezohikoak eta munta handikoak izango dira:

- Zirkuluaren organoak eta arduradunak aukeratzea, aldatzea eta kargutik kentzea.
- Zirkuluaren antolamenduari buruzko barne-arautegiak aldatzea.

- Batzorde edo lantaldeetako arduradunak edo bozeramaileak aukeratzeko hauteskunde-prozesuak egitea.
- Duten garrantziarengatik, herrialde batean edo lekuan lekuan, Podemosen irudi publikoa definitu edo horretan eragina izan dezaketen erabakiak hartzea.

Kasu horietan, Batzar presentzialean egingo diren bozketa-prozesuak ez du balio izango, ondoko kondizioak konplitu ezean:

- Herrialdean edo tokian tokian Podemosen inskribatutako pertsonen %10eko quoruma beharko da, gutxienez.
- Bozketa-prozesu bat egin beharko da, horretarako behar diren kondizioak betez (kasuaren iragarpena, esposizio publikoa eta eztabaida).
- Batzar presentziala hasi zutenekiko %50eko quoruma beharko da, gutxienez.

Kondizio horiek konplitu ezean, Zirkuluko Batzarrak aurrera segitzeko, ezinbestekoa izango da erabaki bat hartzea, lurralde-esparru berean edo goragoko mailan dagoen Herritarren Kontseiluarekin alde aurretik kontsultatu ondoren, edota erabaki hori ontzat eman beharko du lurralde-esparru berean edo goragoko mailan dagoen Herritarren Batzarrak, hari kontsulta egin ondoren.

## **60. artikulua. Zirkuluetako organoen eskumenak gauzatzeari buruz**

**a)** Baliozkotzat jo diren zirkuluetako organo hautetsiek, beren eskumenak gauzatzean, Estatu-tuetan jasota dauden kontrol- eta gardentasun-mekanismoen galbahetik pasatu beharko dute eta Zirkuluko Batzarrak berak ontzat hartzen dituenetik ere bai; aldi berean, konplitu beharko dituzte lurralde-esparru berean edo goragoko mailan dauden Batzarrek onartutako Arautegiak ere.

**b)** Balioetsitako Zirkuluaren Batzarrak soilik babestu eta bultzatzea dezake ekimen bat Podemosen izenean, baina bere izenean joan dadin ere galaraz dezake, ekimen horri betoa jarritz. Horrek ez du esan nahi, ordea, Podemoseko kideek nahi dituzten ekimenetan parte har ez dezaketarik beren aldetik, maila pertsonalean eta alderdiaren ordezkari izan gabe egiten badute.

Zirkulu bateko ekimenen batek nolabaiteko eragina badu Podemosen irudian edo jardunean, Herritarren Batzar eta Kontseilu bateko lurralde-esparruan, horiek eskumena izango dute ekimena ebaluatze eta aurrera segi dezan baimena emateko edo ukatzeko.

**c)** Balioetsi diren Zirkuluetako lantaldeak edo batzordeak ahal diren irekienak izango dira, eta parte-hartzea bultzatu eta gardentasunez jardungo dute. Alde horretatik, oinarritzko arau hauek errespetatu beharko dira:

- 1.** Ez batzorde batek, ez bozeramaile batek, ez lanen arduradun batek blokeatu ahal izango du beste kideen ekimenik, Podemoseko Estatutuekin eta printzipioekin bat baldin badator hori.
- 2.** Podemoseko kide batek ezingo ditu aurrera atera balioetsitako Zirkuluak izendatu dizkion erantzukizunak eta lanak, besteen parte-hartzea mugatuz; ezingo du, adibidez, informazioa ezkutatu eta beretzat gorde. Halakorik gertatuko balitz, pertsona horri erantzukizunak kendu ahal izango dizkio batzarrak.
- 3.** Lantaldeak irekiak dira, eta parte-hartzea sustatzen dute. Jakinarazi egingo dute zer egunetan, orduetan eta lekutan egingo dituzten bilerak, nahi duenak parte har dezan.

Era berean, beren ekimenen berri emango dute beti, nahi duenak haietan parte har dezan, hala nahi badu.

**4.** Podemosekoa ez den pertsonaren batek (beste erakunde edo kolektiboren batekoak-edo) balioetsitako Zirkulu bateko kideren bati proposamenen bat egiten badio edo interpelatzen badu, horrek gainerako kideei jakinaraziko die proposamena -bilera batean aurrez aurre, ahal dela-, eta proposamen horretan parte hartzera gonbidatuko ditu, nahi duenak parte har dezan.

**d)** Zirkulu bateko edozein kidek eskatu ahal izango du herrialde bateko edo lekuan lekuko Barne Demokratikoen Batzordearen laguntza -edo Estatu-mailakoarena, hala behar izatera-, ezarrita dauden arauak eta jardunbideak defendatzeko, kontraesanak dituen idatzizko prozedura batean.

## **61. artikulua. Finantziarioa eta gardentasuna Podemoseko Zirkuluetan**

**a)** Balioetsitako Podemoseko Zirkuluak behartuta daude beren kontuak, finantziario-bideak eta baliabide ekonomikoen erabilera argitara atera eta publikatzera, herritarrek erraz eta argi eskuratzeko moduko mekanismoen bitartez, eta sei hilabetez behin egin beharko dute, gutxienez. Horrez gainera, maila goragoko Herritarren Batzarrak edo Kontseiluak onar ditzakeen bestelako obligazioak ere bete beharko ditu, gardentasunari dagozkionak, bereziki.

**b)** Balioetsitako Podemoseko Zirkuluek finantziario-mekanismoak sortu eta taxutu beharko dituzte, maila goragoko Herritarren Kontseiluarekin batera, eta kontuak argi eman beharko dizkiote horri, Podemoseko gardentasun-arau orokorrak konpliz eta Zirkuluaren lurralde-esparru berean edo maila goragoan dauden Herritarren Batzarrak edo Kontseiluak hartutako neurri espezifikoek kasu eginez.

**c)** Zirkuluek egiten dituzten kontratazioek urteko aurrekontuaren %5 gainditzen badute, publiko egin beharko dira, eta Zirkuluak behar diren neurriak hartuko ditu, gutxienez hiru aurrekonturen artean, beren beharretara hobekien egokitzen dena aukeratzeko.

**d)** Podemoseko kide batek ezingo du, inola ere, Zirkuluaren ondarea ez enbargatu, ez transferitu; Zirkulua da horren jabea, eta Zirkulua desegiten denean baino ezin da aldatu egoera hori.

**e)** Zirkulu bateko edozein kidek eskatu ahal izango du herrialde bateko edo tokian tokiko Berne Demokratikoen Batzordearen laguntza -edo Estatu-mailakoarena, hala behar izatera- Zirkulu bakoitzean eta Estatutuetan jasotzen diren gardentasun- eta bateraezintasun-printzipioak egiaz konplizten direla defendatzeko, kontraesanak dituen idatzizko prozedura batean, eta eskatu ahal izango du, orobat, fideltasuna kontabilitatean, bai eta arduradunek zuzen eta zintzo betetzea beren betebeharrak.

## **62. artikulua. Zirkuluko kideen artean konfiantza galduz gero, auzia nola konponduko den**

**a)** Zirkuluko kide batek edo gehiagok gainerakoen konfiantza galduz gero, edo hala moduzko susmoak baldin badaude, arrazoi sendoetan oinarriturik, partaide baten portaeraren gainean, prozedura berme-emailea martxan jarriko da, eta horren bidez argi eta zehatz azalduko dira zer motibok eragin duten konfiantzaren galera, eta, aldi berean, zalantzan jarri den pertsonaren defentsarako eskubidea irmoki garantizatuko da, bestelako kontsiderazio guztien gainetik.

**b)** Baldin eta Zirkuluko partaide batek, prozedura berme-emaile hori konplizitu beharrean, ekiten badio iraintzeari edo gaizki-esaka jarduteari beste kide baten kontra, horren defentsarako eskubidea zapuztuz eta babesik gabe lagaz, falta larria egingo du, hain modu makurrean jokatzuz arrisku bizian jarriko baitu erakundearen barne-kohesioa.

**c)** Konfiantza-galerak eragindako gatazkak konpontzeko, Zirkuluak prozedura bat jarriko du martxan: «Konfiantza-mozioa/baliogabetzekoa».

**1.** Sinadurak bilduko ditu, konfiantza-mozioaren prozesuari ekiteko. Konfiantza-mozioa Zirkuluko kide baten eginbeharrak baliogabetzeko bada, Zirkuluko kideak eginbehar horiek bere gain hartzeko jaso zituen aldeko botoen %20 baino sinadura gehiago bildu beharko dira prozesua hasteko.

**2.** Batzar berezirako deialdia egingo du, gaia aztertzeko; zazpi egun lehenagotik egin beharko du gutxienez, eta argi eta zehatz adieraziko du zer ordutan eta non egingo den bilera. Orobat, eguneko gai-zerrendan garbi azalduko da zer gai aztertuko den batzarran; eta kanpoan utziko dira Zirkuluaren inguruko beste gai guztiak.

**3.** Moderatzaile bat, bi aldeek onartuko dutena, izendatzen dela bermatuko du. Hala behar izatera, Estatu-mailako Hedatze-Arloko kideek laguntza emango dute eginbehar horretan.

**4.** Denbora mugatua (hogei bat minutu) emango die gatazkako bi aldeei, nor bere jarrera azaldu dezan. Azalpenak eman ondoren, batzarrak galderak egin ahal izango dizkie bi aldeei. Ez da eztabaida; azalpenen gainean egon daitezkeen zalantzak argitzea da helburua.

**5.** Horren ondoren, bileran parte hartu duten kideek bozketa egingo dute, eta horren bidez erabakiko du Batzarrak lagun horrengan jarria zuen konfiantza galdu duen edo konfiantza berritzen dion.

Batzarrak lagun horrengan jarri zuen konfiantza galtzen badu, eztabaida zabalduko da, eta bakoitzak txandaka hitz egin ondoren, zer neurri hartuko diren erabakiko da. Nolanahi ere, ezingo da Podemoseko kide bat erakundetik egotzi, inola ere; zentzabidea izan daiteke, konparazio baterako, aldi baterako ukatzea botorako eskubidea edo galaraztea Zirkuluan halako funtzio jakin batzuk egin ditzan edota erantzukizunak kentzea, halakorik balu. Hartzen diren neurriek helburu garbi bat izan behar dute beti: Zirkuluaren barruan konfiantza berreskuratzea ostera ere, eta horretarako behar diren kondizioak jartzea; tentuz jokatu eta ongi begiratu behar dugu Podemoseko kide orori errespetatzen zaiola galdutako konfiantza atzera berreskuratzeko eskubidea, eta aukera eman behar zaio oker bat egin duen lagunari alderdian parte hartzen jarraitzeko, neurri horietatik kanpo egon daitezkeen beste modu posibleen bidez.

**d)** Baldin eta, prozesu horren ondotik, aldeetakoren batek sentituko balu Estatutueta jasotzen diren eskubideak urratu zaizkiola, Podemoseko inskribatu edo afiliatu den aldetik, errekurtsioa jar dezake Berme Demokratikoen Batzorde eskudunaren aurrean; nolanahi ere, batzorde horrek jardun dezake ofizioz ere bere aldetik.

### **63. artikulua. Zirkuluen desegiteari buruz**

**a)** Berme Demokratikoen Batzordeak arautegi bat egingo du Estatutu hauek aplikatzeko, Podemosen printzipioak eta oinarriak konplitu ez eta Zirkulu bat halabeharrez desegin beharko litzatekeen kasuetarako.

**b)** Zirkulu bat desegiten bada, herrialde-mailan koska bat gorago dagoen organoaren ondasun eta jabetzen parte izatera pasatuko da haren ondarea.

# V. IZENBURUA: ADMINISTRAZIOA ETA KONTROL DEMOKRATIKOA

## **64. artikulua. Alderdiaren ekitaldi ekonomikoa bat etorriko da urte naturalarekin.**

Koordinazio Kontseiluak urtero egingo du hurrengo ekitaldi ekonomikoaren aurrekontua. Herritarren Kontseiluak urteko ekitaldi ekonomikoa hasi aurretik onartu beharko du aurrekontu hori.

Behin ekitaldi ekonomikoa bukatutakoan, Koordinazio Kontseiluak txosten bat aurkeztuko dio Herritarren Kontseiluari, aurrekontua nola betearazi den zehatz azalduz, eta azken horrek ontzat eman edo atzera botako du betearazpena.

## **65. artikulua. Kontu-hartzailea**

Herritarren Kontseiluak kontu-hartzaile bat hautatuko du urtero bere kideen artean; kontu-hartzailea ezingo da Koordinazio Kontseiluko partaide izan. Horren zeregina: etengabe kontrolatzea alderdiaren kudeaketa ekonomikoa.

## **66. artikulua. Dokumentu ekonomikoak ikusteko eskubidea**

Podemoseko edozein kidek eskubidea du alderdiaren esku dagoen edozein dokumentu ikusteko, Datuak Babesteko Lege Organikoak agintzen duen edukia beste mugarik gabe.

## **67. artikulua. Dokumentazio-araubidea. Kontabilitate-obligazioak**

Alderdiak egunean eramango ditu, Afiliatuen Liburuaz gainera, Akten Liburuak, Kontabilitatekoak, Diruzaintzarenak, eta Inbentarioen eta Balantzen Liburuak. Horiei esker noiznahi jakin daiteke zein den gure finantzen egoera. Gardentasuna ziurtatzeko txosten ekonomiko zehatzak egingo dira hiru hilabetez behin.



# XEDAPEN IRAGANKORRAK

**1. xedapen iragankorra.** Herritarren Kontseiluaren eginkizun lehen eta urgentziazkoa prozesu konstituziogileak bultzatzea da herrialdeetako eta tokian tokiko alderdi-egituretan. Horretan jarriko ditu erakundeak dauzkan baliabideak, hauteskunde-prozesuak errazte aldera. Ildo horretan, eta arrazoi teknikoek galerazten ez badute, egutegi honi jarraituko zaio, herrialdeetan eta tokian tokian prozesu konstituziogileak aurrera eramateko:

Udal-hauteskunde konstituziogileak:

- Azaroaren 16tik abenduaren 5era: Idazkaritza Nagusirako eta Herritarren Kontseiluetarako hautagaien aurkezpena. Eskakizun nagusia: hautagaiak proiektu bat aurkeztu beharko dute, politikoa izango dena batetik, baina antolamendu-eredu bat ere proposatu beharko duena erakundea udal-mailan egituratzeko.
- Abenduaren 6tik abenduaren 25era: hauteskunde-kanpaina.
- Abenduaren 26tik abenduaren 30era: botazioa.
- Urtarrilaren 2a: hautagaiak nor izango diren jakinaraziko da.

Erkidegoetako hauteskunde konstituziogileak:

- Urtarrilaren 7tik urtarrilaren 25era: Idazkaritza Nagusirako eta Herritarren Kontseiluetarako hautagaien aurkezpena. Eskakizun nagusia: hautagaiak proiektu bat aurkeztu beharko dute, politikoa izango dena batetik, baina antolamendu-eredu bat ere proposatu beharko duena erakundea Herrialde- edo Erkidego-mailan egituratzeko.
- Urtarrilaren 26tik otsailaren 8ra: hauteskunde-kanpaina.
- Otsailaren 9tik otsailaren 13ra: botazioa.
- Otsailak 14: hautagaiak nor izango diren jakinaraziko da.

**2. xedapen iragankorra.** Herrialdeetako egiturak eratu arte, eta, beraz, herrialdeetako 17 idazkariak eta atzerrian bizi diren Podemoseko inskribatuen ordezkaria izendatu arte, Herritarren Kontseiluak 63 kide izango ditu, Batzarrak hautatuak guztiak, eta, horiei idazkari nagusia gehitu behar zaie, Kontseiluko kide iraunkorra da eta.

**3. xedapen iragankorra.** Protokolo honetako artikuluren bat betetzen ez duten Podemoseko Zirkuluek gehienez ere bi hilabeteko epea dute, onartzen denez geroztik, horretara egokitzeko.

**4. xedapen iragankorra.** Berme Demokratikoen Batzordeak berehala jardun ahal izango du, ofizioz edo alde batek eskatuta, protokolo hau betetzen ez den kasuetan.

**5. xedapen iragankorra.** Herrialde edo toki batean bi Zirkulu daudenean, Berme Demokratikoen Batzordeak arautuko du Herritarren Kontseiluko prozesu konstituziogilea eta berak hautatuko du idazkari nagusia.

**6. xedapen iragankorra.** Isiltasun administratibo positiborako hiru hilabeteko epea ezarri da 46. artikuluan, eta ez hogeita hamar egunekoa (Herritarren Batzarra egiten denetik ondorengo sei hilabetetan zehar).

**7. xedapen iragankorra.** Herritarren Kontseiluak arautegi bat egingo du Estatutu hauek gartzeko, sei hilabeteko epean, eta zigorrak ezarriko dira, konplitzen ez diren kasuetarako.

**8. xedapen iragankorra.** Herritarren Kontseiluak arautegi bat ezarriko du instituzioetan eta alderdian aldi berean kargu bat dutenen bateraezintasuna erregulatzeko. Arautegi horretan bateraezintasunak zehaztuko dira maila pertsonalean, zibilean eta politikoan, eta nahitaez konplitu beharrekoak izango dira arau horiek, sufragio pasiborako eskubidea baliatzeko.

**9. xedapen iragankorra.** Podemosen behin behineko antolaketa errazteko udalerrietan, eta modu autonomoan bestela erabakitzen ez den bitartean, Herritarren Kontseiluek kide-kopuru hau izango du:

- 100 inskribatutik beherako udalerrietan ez dago Herritarren Kontseilurik aukeratu beharrik.
- 100-200 inskribatu dituzten udalerrietan 7 kideko Herritarren Kontseilua hautatuko da.
- 200-500 inskribatu dituzten udalerrietan 11 kideko Herritarren Kontseilua hautatuko da.
- 500-1.000 inskribatu dituzten udalerrietan 17 kideko Herritarren Kontseilua hautatuko da.
- 1.000-2.000 inskribatu dituzten udalerrietan 21 kideko Herritarren Kontseilua hautatuko da.
- 2.000 inskribatutik gorako udalerrietan 25 kideko Herritarren Kontseilua hautatuko da.

**10. xedapen iragankorra.** Herrialdeetan eta Erkidegoetan Podemosen eraketa errazteko, eta modu autonomoan bestela erabakitzen ez den bitartean, esparru horretako Herritarren Kontseiluek 34 kide izango dituzte, eta idazkari nagusia gehituko zaie horiei, koordinatzaile gisa.

# I. ERANSKINA: HERRITARREN BATZARRAREN PROZEDURAK

Eranskin honen helburua mekanismo eraginkor bat ezartzea da, edozein pertsonak edo pertsona-taldek, Zirkulu batean egon edo ez egon, proposamenak egin ahal ditzan. Proposamen horietatik ekimen politiko bat aterako da, gehiengoak horren alde egiten badu; mekanismo hori transmisio-uhala baten tankerakoa litzateke, eta borondate politiko konkretuak bideratuko lituzke alderdiaren bidez. Demokrazia zuzena obratu eta gauzatzeko halako mekanismo bat izateak markatzen ditu diferentziak alderdi tradizional batek duen egitura zurrunaren eta politika egiteko modu berri baten artean, eta indartu egiten du Podemosen apusturik inportanteena: botereak herritarren esku egon dadila lortzea. Arautegi honek pausoz pauso zehazten ditu herritarren aldetik sortzen diren proposamenek, aurrera egiteko pasatu behar dituzten faseak.

## PARTE-HARTZEKO ETA ERABAKITZEKO MEKANISMOEN PLANTEAMENDU OROKORRA:

Eztabaida egon behar du, eta informazio argia eman behar da erabaki behar den gaiari heltzeko. Behar den informazio guztia eskuratu behar da, iritzia taxuz emateko, oso arriskutsua baita informazio okerrarekin edo partzialarekin jardutea.

Podemosen inskribatuta dagoen jendeak zuzenean hartuko ditu erabakiak botazioen bidez. Talde txiki batek ezin du blokeatu Podemoseko kide gehienen nahia (ordezkariak ere ez). Eztabaida sortzen denean, ezinbestekoa da posizio minoritarioak ere aintzat hartzea, ahal den kontsentsurik zabalenarekin lortzeko lortu nahi dena.

Arintasuna eta efikazia praktikan. Proposamenak erregularitasunez sor daitezten eta horiek botaziora eraman daitezten lortu behar du mekanismoak. Proposamen bat egiten denetik onartzen den arte, ez da komeni denbora gehiegi pasatzea, eta kontuz ibili beharko da horrekin.

## PARTE-HARTZEKO ETA ERABAKITZEKO MEKANISMOAREN FASEAK, ZEHATZ AZALDUTA:

### A) HERRITARREI KONTSULTA EGITEA:

#### 1. fasea. Deliberazioa, eztabaida eta proposamenak jasotzea

Edozein pertsonak, lantaldek edo Zirkuluk nahi hainbat proposamen egin ditzake, nahi duenean, Podemos Plazan, deliberaziorako eta eztabaidarako gune libre eta irekia da eta: nahi duenak erraz asko egin ditzake hor proposamenak, bai erakundearen barrutik, bai kanpotik.

Gutxienez, eroldaren %0,2aren abala duten proposamenak (horretarako propio prestatu diren formularioen bidez egingo dira) edo Podemos Plazan antzeko proportzioan aldeko botoak izan dituztenak, webgunera igoko dira, horien zabalkundea errazteko.

#### 2. fasea. Abalak jasotzea eta lehentasunak jartzea

Webgunera igotzen diren proposamen guztiak zerrenda batean agertuko dira, Podemosen inskribatuta dagoen edozein pertsonak, bere botazio-kode egonkorraren bidez, modu seguruan abala eman ahal diezaion berak gogoko duenari.

Bide horretatik, gutxienez, eroldaren %2aren abala lortzen duten proposamenak hileko lehenbiziko igandean (proposamenen zabalkundea kontzentratzeko) bidaliko zaizkie inskribatu

eta Zirkulu guztiei, proposamen horiek tramitatu behar diren edo ez erabaki dezaten. Inskribatuek botazio-plataforma seguruaren bidez (kode egonkorra erabiliz) emango dute abala, eta Zirkuluek horretarako propio prestatu diren formularioen bidez.

Gehienez ere hiru hilabeteren buruan, tramitazio- eta botazio-fasera pasatuko dira zuzenean, gutxienez, inskribatuen %10aren edo Zirkuluen %20aren abala jasotzen duten proposamenek.

### **3. fasea. Kontsentsua bilatzea eta proposamen behin betikoa egitea, bozketara aurkezteko**

Erakundeak lantalde bat sortuko du proposamena bultzatu dutenek eta legelariak, adituek eta interesa duen orok, erraztasunak izan ditzaten modu aktiboan parte hartzeko eztabaidetan eta erabakiak hartu arteko prozesu guztian.

Gehienez ere hilabete baten buruan, formulazio zehatz bat biribildu eta aurkeztu beharko du lantaldeak. Azken formulaziorako kontsentsurik ez balego, talde eragileak bere proposamena aurkeztuko du, eta lantaldetik beste proposamen alternatibo bat aurkeztu ahal izango da.

### **4. fasea. Azken botazioa: ekintzara pasatzea**

Behin 3. fasea bukatzen denean, publiko egingo dira azken formulazioetan landu diren proposamenak, eta botazio-prozesuari ekingo zaio boto seguruaren plataformaren bidez. Herritarren Kontseiluaren eginkizuna da zabalkunde publikoa behar beste garantizatzea, ahal den parte-hartzerik handiena segurtatzeko bozketan; eta behar diren baliabide tekniko guztiak jarri beharko ditu, botazioak gorabeherarik gabe egin daitezten.

Bozketan gehiengo sinplez onartzen bada, proposamena formulatuta dagoen bezalaxe gauzatu da. Botazioa zuzeneko botoaren bidez egingo da. Onartu dena aldatzeko, beste bozketa bat egin beharko da aurrerago, eta jendeak beste erabaki baten alde botatu beharko du hemen aipatu diren faseetako pausoak modu berean emanez (zeharkako mekanismoek erabaki horiek ez dituztela aldatzen ziurtatu behar da).

## **B) BALIOGABETZEKO KONTSULTA:**

### **1. fasea. Baliogabetzeko eskabidea**

Edozein pertsonak, lantaldek edo Zirkuluk noiznahi egin dezake Podemoseko edozein kargu hautetsi baliogabetzeko eskabidea. Proposamenek aurrera egiteko, eroldaren %1ak babestu behar du gutxienez (horretarako propio prestatu diren formularioen bidez). Eskabide horiek webgunean argitaratuko dira.

### **2. fasea. Aldekoen botoak biltzea**

Webgunera igotzen diren proposamenak zerrenda batean agertuko dira, Podemosen inskribatuta dagoen edozein pertsonak modo seguruan bozkatu dezan, botazio-kode egonkorraren bidez.

Gutxienez, inskribatuen %20aren edo Zirkuluen %25aren babesa lortzen duten proposamenak bozkatu egingo dira, hiru hilabeteren buruan.

### **3. fasea. Botazioa**

Herritarren Kontseiluak jarriko du martxan botazio-prozesua, kasuan-kasuan, eta horren zabalkunde publikoaz arduratuko da, ahal den jende gehienak parte har dezan bozketan; eta behar diren baliabide teknikoak jarriko ditu, botazioak behar bezala egiten direla segurtatzeko.

Herritarren Kontseiluak jarriko du martxan botazio-prozesua, kasuan-kasuan, eta horren zabalkunde publikoaz arduratuko da, ahal den jende gehienak parte har dezan bozketan; eta behar diren baliabide teknikoak jarriko ditu, botazioak behar bezala egiten direla segurtatzeko.

Zuzeneko botoaren bidez egingo da bozketa.

### **C) BATZAR NAGUSI EZOHIOA:**

#### **1. fasea. Batzar Nagusi Ezohioa eskatzea**

Edozein pertsonak, lantaldek edo Zirkuluk egin dezake Batzar Nagusi Ezohiorako deialdi-eskaera. Erroldaren %3ak babestu beharko ditu, gutxienez, proposamenak (horretarako propio prestatu diren formularioen bidez). Proposamen horiek webgunera igoko dira.

Ezin da, inola ere, urtebete baino gehiago igaroko Herritarren Batzar Nagusi Ezohio bat egiten denetik hurrena egin bitartean.

#### **2. Fasea. Aldeko botoak biltzea**

Webgunean publikatu diren proposamen guztiak zerrenda batean agertuko dira, Podemosen inskribatuta dagoen edozein pertsonak modu seguruan bozkatu dezan, bere botazio-kode egonkorren bidez.

Gutxienez, inskribatuaren %20aren edo Zirkuluaren %25aren babesla lortzen duten proposamenak bozkatu egingo dira, hiru hilabeteren buruan.

#### **3. Fasea. Bozkatzea**

Herritarren Kontseiluak jarriko du martxan botazio-prozesua, kasuan-kasuan, eta horren zabalkunde publikoaz arduratuko da, ahal den jende gehienak parte har dezan bozketan; eta behar diren baliabide teknikoak jarriko ditu, botazioak behar bezala egiten direla segurtatzeko.

Botazioa zuzeneko botoaren bidez egingo da.

Prozesuaren parte edo xehetasun guztiak alda daitezke (epeak, fase bakoitzaren oinarriak eta portzentaiak, prozesuan erabilitako tresna konkrituak eta beste), baina aldaketa horiek prozesuaren barruan egin behar dira, manipulatzeko aukerarik egon ez dadin eta prozesua gorabeherarik gabe burutu dadin. Egiten diren proposamenak hutsean geratu ez daitezzen, erregularitasunez iritsi behar dute azken botaziora, eta hori segurtatu behar dute prozesuaren parte guztiek.

## II. ERANSKINA: EZTABAIDARAKO DEIALDIAK HERRITARREN KONTSEILUAN

### 1. fasea. Batzar Nagusi Ezohikoa eskatzea

Herrialdeetako eta lekuan lekuko Zirkuluek aurkezten dituzten proposamenak -gailan kualifikatutako bi teknikoren abala behar dute eta Kontseiluaren esparruko Zirkuluen %10aren babesa, gutxienez- webgunean jarriko dira, jendeak horien alde bozka dezan.

### 2. fasea. Aldeko botoak biltzea

Webgunera igotako proposamen guztiak zerrenda batean agertuko dira, Podemosen inskribatuta dauden pertsonak horien alde bozkatu dezaten.

Hiru hilabeteren buruan, gutxienez inskribatuen % 25aren edo balioetsitako Zirkuluen % 30aren babesa lortzen duten proposamenak bozkatu egingo dira.

### 3. fasea. Botazioa

Herritarren Kontseiluak jarriko du martxan botazio-prozesua, kasuan-kasuan, eta horren zabalkunde publikoaz arduratuko da, ahal den jende gehienak parte har dezan bozketan; eta behar diren baliabide teknikoak jarriko ditu, botazioak behar bezala egiten direla segurtatzeko.

Bozketa zuzeneko botoaren bidez egingo da.

# 1. MODULUA: ANTOLAKETAKO TRESNAK SAREAN PODEMOSEKO ZIRKULUENTZAT

## Sarrera

Teknologiak, jendearentzat baliagarria izateaz aparte, ekarpen handiak egin ditzake, ematen zaion erabileraren arabera, arlo etikoan, politikoan eta antolaketarekin lotutako kontuetan. Transbertsala da, arlo horietan guztietan diharduenez, eta, aldi berean, euskarria ere bada, ahalmen itzela baitu horien alderdi eta potentzialtasun asko garatzeko.

Zirkuluen antolamendua hobetzeko eta parte-hartzea sustatzeko, atsegina handiz jarriko ditugu eskatzen diguten guztien esku gure ezaguerak eta trebetasun teknikoak.

IKT (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) Zirkuluak eta Podemoseko Parte-hartze Taldeak hilabete askoan lanean gogor jardun eta gero, badakigu Zirkuluak zer behar dituzten zabalkundeari, komunikazioari eta barne-antolaketari dagokienez.

Horregatik, ahalegin handiak egin ditugu hiru tresna informatiko garatzeko, sinetsita baikaude laguntza handikoak izango zaizkiela behar horiek betetzeko, eta Zirkuluak jendearekin aurrez aurre egiten duten lanaren osagarri izango direla.

Ahaleginean saiatzen gara gune horien segurtasuna eta egonkortasuna garantizatzen, bai eta ahal den informazio gehiena jasotzen eta ematen ere horien erabilerari buruz, ikasketa ahal den gehiena erraztea da-eta gure asmoa.

Plataforma guztietara erraz iristeko moduak bermatu nahi ditugu. Pertsona guztiek, zeinahi dela ere beren kondizioa, aukera berberak izan behar dituzte horietan parte hartzeko.

Erakundearen funtzionamendua erraztera eta indartzera datozen tresna horiek Zirkuluen esku jartzeaz gainera, behar diren prestaketa eta euskarriak eskainiko ditugu, erreminta horiek nola erabiltzen diren irakasteko tokian tokiko Parte-hartze Taldeei; aldi berean, tresna horiek behar bezala funtzionatzen dutela segurtatzen saiatuko gara, gizarteko sektore askok tresna informatikoak erabiltzeko oraindik dituzten zailtasunak samurtzeko eta horien arteko arrakala digitala ahal den gehiena murrizteko.

## Zabalkunde-gunea / Blog-sarea zirkuluetarako

Beharrezkoa da Zirkulu guztiek blog bat izan dezaten, berek kudeatua, horren bidez herritarrak informatzeko. Ezinbestekoa da, gainera, horren funtzionamendua gardena eta argia izatea.

Gune horrek bideratu egingo ditu herritarren eta Zirkuluaren arteko harremanak: horren bidez jendea erraz jarriko da harremanetan Zirkuluarekin, eta Zirkuluak, aise eta eraginkortasunez, eman ahal izango du bere jardunaren berri. Herritarren parte-hartzea ere sustatuko du, eta Zirkuluaren erabakiei eta prozedurei ari eta gardentasun handiagoa emango die.

Uste dugu blogak sortu behar direla, eta Zirkulu bakoitzak berea behar duela; blogak Podemosen estilo-liburuaren arabera diseinatu behar dira, eta gailu mugikorretatik erabiltzeko modukoak izan behar dute.

Blogak aukera bikaina ematen dute informazioa azkar eta erraz emateko eta jasotzeko; artikulua argitaratu, orri finkoak sortu, informazioa beti eskura izateko, eta egutegiak edo

ekitaldiak argitara daitezke horien bidez. Beste aukera asko ere eskaintzen dituzte, eta horiek ere funtzionamenduan jarriko dira, Zirkuluek hala eskatzen badute.

## Topagunea / Audio-txata batzar birtualetarako

Audio-txata komunikazio-gune bat da, ahots bidez funtzionatzen duena; hainbat pertsona jartzen ditu harremanetan batera, modu ordenatu eta errazean, eta eztabaida moderatzeko aukera ematen du, txatera partaide asko sartu badira aldi berean. Akta ere erraz jaso daiteke horren bidez, dokumentu kolaboratzaileen editoreen erabilerarekin konbinatzen bada.

Herritarrek, zer tokitan dauden kontuan hartu gabe, noiznahi baliatu ahal izango dituzte Zirkulu Sektorialentzako eta lekuan lekuko Zirkuluentzako kanalak.

Edozein gailutik sar daiteke (mugikorretik, ordenagailutik, taulatik); aski da Internetarako konexio izatea. Testu-txat bat ere badauka, audiokoaren alternatiba moduan.

## Zirkuluetan barne-erabakiak hartzeko eta antolaketako gunea

Zirkuluen funtzionamendua hobetzearren eta horko kide guztiei –berezitasunik egin gabe– informaziora iristeko bideak erraztearren, antolaketa-tresna bat eskainiko diegu, horren bidez erraz eta seguru parte har dezaten, hala nahi izatera, Podemoseko Zirkulu bateko barne-prozesu guztietan.

IKT-ko Zirkuluan egiten gabiltzan jarduerak kontuan hartuta, prestatu dugu tresna hau, eta, beraz, Zirkulu bakoitzaren behar eta ezaugarrietara molda daiteke. Gure lehentasunak parte-hartzea erraztea eta informaziora iristeko bideak denon eskura jartzea izan dira, bai eta, eztabaida-prozesuetan eta erabakiak hartzeko guneetan, denoi aukera-berdintasuna eskaintzea ere.

Funtzionaltasun eta ahalbide hauek ematen dizkio tresna honek Podemoseko Zirkuluen antolaketari:

- Azkar eta erraz bisualizatzen du Zirkuluaren jarduera.
- Mezularitza-lanak egiten ditu Zirkuluko kideen artean.
- Ekitaldi eta batzarretarako deialdiak egiteko aukera ematen du.
- Artxiboak partekatzen ditu.
- Eztabaidarako foro bat sortzeko aukera ematen du.
- Kolaborazio-dokumentuak egiteko eta gordetzeko baliabidea da.
- Zirkuluaren barruan proposamenak egiteko eta bozkatzeko bidea jartzen du.
- Ideia-jasak bideratzeko tresna da.
- Gune hori erabiltzeak, aipatu diren bermeak emateaz gainera, aukera hauek eskaintzen dizkie Zirkuluei:
  - Barne-erabakiak eta prozesuak argi eta garbi jaso ditzakete, idatziz.
  - Batzarrera etorri ezin izan diren kideei parte hartzeko aukera ematen die.
  - Ezagutza-base bat sortzeko aukera ematen du, eta proposamen eta ideien segida ziurtatzen da hala.



## 2. MODULUA: FINANTZIAZIOA

### 1. Sarrera

Podemosek bere kontuak argi eman, eta publikatu egingo ditu; kontu guztiak eta erakundearen maila guztietakoak -Estatu-mailakoetatik hasita udal-mailakoetaraino- aurkeztuko ditugu urtero, eta modu irekian eta solidarioan kudeatuko ditugu. Aldi berean, herrialde-mailako eta tokian tokiko autonomia finantzarioa segurtatuko dugu. Legeek ezartzen dizkiguten obligazioak konplrituz egingo dugu hori guztia, eta zorrotz beteko ditugu gardentasunaren eta finantza-independentziaren gainean hartu ditugun konpromiso guztiak.

Jabetzen gara ez dela nolana hiko desafioa, eta ongi dakigu ezin dugula, inola ere, hutsegiterik egin alderdi horretatik, jendearen konfiantza galdu nahi ez badugu. Gure kudeaketa argia izango dela hitzeman dugu, eta ez diogu uko egingo konpromiso horri, alderdi bat garbi, aratz eta zuzentasunez gestiona daitekeela erakusteko erantzukizun historikoa baitugu.

Finantza-kudeaketaren printzipioekin batera, inportantea iruditzen zaigu bide-orri bat izatea, gure helburuak lortzeko. Bide-orri horrek gestioa arian-arian deszentralizatzen bideratuta egon behar du; ildo horretan, guk zorrotz beteko ditugu legezko obligazioak, eta barne-kontrolerako mekanismo efikazak ezarriko ditugu erakundearen.

Dokumentu hau bi partetan banatuta dago: batean, proposatzen dugun finantziario-ereduaren ikuspegi bat ematen dugu, eta, horrekin batera, egitasmo bat proposatzen dugu, deszentralizazioari ekiteko; eta, bestean, Podemoseko Estatutuetan, gure ustez, jasota egon beharko luketen printzipioak azaltzen ditugu. Finantza Batzordeak, herrialdeetako eta lekuan lekuko finantzetako arduradunekin batera, erakundearen barneko arautegiak eta protokoloak landu eta garatu beharko ditu, Herritarren Batzarrak agindu zuen ildotik.

### 2. Protokoloa

#### 2.1. HELBURU POLITIKOAK: GARDENTASUNA, INDEPENDENTZIA ETA PARTE-HARTZEA

##### **Gardentasuna eta kudeaketa arduratsua**

Ustelkeria instituzioetan eta enpresa publikoetan txertaturik dago. Herritarrak kezkatu eta haserre daude, eta ez dira konformatuko axaleko aldaketekin; gauzak egiteko modu berri bat nahi dute. Mesfidantzaz begiratzen dio jendeak klase politikoari, normala den bezala, eta jokabidea errotoaldatzeko eskatzen dio, eta gizalegez portatzeko.

Herritarrek erraz eta etengabe kontrola ditzakete alderdiaren gorabehera ekonomikoak, gure kontuak argi eta zehatz publikatzen ditugunez eta Podemoseko kideok erakundearen edozein dokumentu ekonomiko aztertze eskubidea dugunez. Mekanismo horiek eragotzi egiten dituzte portaera desegokiak edo hala moduzkoak, eta baliabideak optimizatzen laguntzen digute; horiei esker gardentasun finantzarioaren aldeko aldarrikapenen erreferentzia bihurtu gara, eta, aldi berean, jendearen kontrolpean jarri gara, herritarrei geuk hala eskatuta. Alternatiba bideragarriak eraikitzen hasi behar dugu, ezinbestekoa da, etorkizunerako oinarriak jartzen ari gara eta.

Podemos indar aldatzaile bihurtu dadin, ideiei gorputza eman beharko die, eta gardentasunaren diskurtso hutsetik harago joan, eta errealitatera ekarri beharko du, eta inportantea da errealitate horrek potentzial pedagogikoa izatea, barrura nahiz kanpora begira. Garden-

tasuna eta parte-hartzea dira erakunde ongi gobernatua, ongi antolatua eta ongi informatua eraikitzeko zutabe nagusiak. Hala, Podemosen barruan karguak eta eginbehar garrantzitsuak izango dituzten pertsonak barneratua izan behar dute erantzukizun politikoak hartzeak berekin dakarrela kontuak eman beharra, maila guztietan.

## **Finantza-independentzia**

Aurkarien joko-zelaian jokatzeko dugu. Joko-arauak gaurko egoeraren eragile eta ondorio dira, aldi berean, alderdien oligarkiak boterean erroak bota eta agintean betikotzeko asmoa baitu, bere interesak eta irabazpideak babestu beharraren babestu beharrez. Bankuen kreditu bidez finantzatzeari uko egin genionean, alderdien finantziario-sistemaren kontra jo genuen; sistema horretan, alderdiek zorrak zorren gainean egin dituzte bankuekin, eta haien menpeko bihurtu dira. Bestetik, diru-publikoetatik ere finantzatu dira 78ko erregimeneko alderdiak, neurritz gain finantzatu ere, eta menpekotasun horrek beren baseetatik -oinarrizko militante eta jarraitzaileengandik- urrunditu zituzte, eta burokrasia neurrigabea eta sare klientelar zabalak sortu dira horren harira, erabat zaharkituta eta fosilizatuta geratu direnak. Gizarteak ez daki oraindik zeinek egiten dizkieten donazioak alderdi politikoei, ez eta zer-nolako harremanak dituzten alderdiek dirua ematen dietenekin, baina susmo txarrak ditu jendeak, zorrak menpekotasuna eragiten duenez beti.

Zentzu horretan, egitekotan den alderdien finantziario-legearen erreformatik harago joatea proposatu dugu, kontrol handiagoa erreibindikatzen dugu-eta alderdi politikoen finantziario-gestioaren gainean.

Erantzukizunez jardungo dugu, eta baliabide kolektiboen gastuan neurritz eta austeritatez jokatzera konprometitzen gara. Podemosen gestioak orekatua izan behar du, neurtua eta apala. Gastuak sarreraren arabera izango dira.

Aurrean esandako printzipioak betetzeko, neurri hauek hartzea eta esparru guztietan aplikatzea proposatu dugu:

- Podemos ez da finantzatu bankuen kreditu bidez. Bankuei dirurik eskatu gabe, beste finantziario-bide batzuk topatzen saiatuko gara; esate baterako, mikrokreditu pertsonalen edo bonuen bidez finantzatu ditugu hauteskunde-kanpainak beti, gure konpromisoari eutsi eta ez baitugu onartuko herritarrek beste inork finantzatu gaitzan. Podemosek ez du inoiz neurritz gaineko zorrik egingo (zorra ez da sekula pasatuko bere urteko aurrekontuaren %20tik gora).
- Podemos ez da diru-laguntza publikoen menpe egongo, eta, ahal den neurrian, ez dute subentzioek erakundearen funtzionamendua baldintzatuko. Diru-laguntza publikoak jasotzen dituenen, erantzukizunez eta zuzentziaz baliatuko ditu, eta horien parte bat alderdiaz kanpoko proiektu sozialei eman ahal izango die.
- Hauteskunderen artean dirua aurrezten saiatuko gara; hauteskunderi begira poltsa edo fondo bat sortuko dugu, hor biltzen dugun dirua aurrerago etorriko diren kanpainetan baliatzeko.
- Gogotik saiatu behar dugu kolaboratzaile ekonomiko gehiago lortzen, diru-sarrera finkoa behar dugu eta; nolana ere, ez ditugu onartuko donazio neurrigabeak, diru-emateen menpe ez erortzeko. Pertsona batek 10.000 euro eman ahal izango ditu urteko, gehienez ere, kargu edo erantzukizun publikoren bat duten Podemoseko hauteskiek izan ezik; 5.000 eurotik gora ematen duten pertsonen izenak argitara aterako ditugu, Datuen Babeserako Lege Organikoa errespetatuz.

## Parte-hartzea eta gizartera irekitzea

Podemosek jendeari irekiago egon behar du, eta gizartea aldatzen lagundu behar du, instituzioetan nahiz instituzioetatik kanpo lan eginez. Sare ekonomikoa ehunduko dugu, eta topagune gehiago sortzen saiatuko gara, alderdia tokian tokian errotuz joan dadin. Alde horretatik, ongi ikusten dugu tokian tokiko diru-sarrerak dibertsifika daitezen. Podemosek proiektu sozialen finantzazioan lagunduko du, eta herritarren parte hartzearekin aurrekontu-sistemak aplikatuko ditu; bere erosketa-politikan, ekonomia sozial eta partizipatiboaren alde egingo du eta ingurumenaren errespetua sustatuko du. Podemosek bultzatu egingo ditu kode librearen eta *open data* sistemen erabilera finantza-gestioan.

## 2.2. HERRIALDEETAKO EGITURA FINANTZARIOA

Tentuz kudeatu behar dira kontu giltzarriak, donazioena edo gastuen justifikazioarena, adibidez, eta horietan legezko obligazioak zorrotz konplitzen direla garantizatu behar da. Barne-kontrolako sistemak efikaziaz ikuskatzen direla ziurtatzeko eta, alderdiaren maila guztietan kontuak argi eta legezko obligazioak konplitz eramaten direla bermatzeko, kontrol zorrotzak jarri beharko dituzte erakundearen antolaketan koska bat gorago dauden egiturek. Podemosen zuzendaritzaren erantzukizunak, lege-ordezkaritza eramateko eta barne-egitura administratzeko, erakundearen antolaketan beheragoko mailetan dauden egiturek hartuko dituzte bere gain, horretarako gai diren neurrian.

Podemosen finantza-gestioa arian-arian deszentralizatuz joan dadin, behar diren kondizioak jarri behar direla uste dugu, eta antolaketako beheragoko mailek erantzukizunak bere gain hartuz joan behar dutela deritzogu, administrazio-egiturak sendotu eta finantzak modu zorrotz eta gardenean kontrolatzeko gai diren neurrian. Kondizio horien barruan daude, besteak beste: kontabilitatea modu profesionalean eramateko eta lege-betekizunak konplitzeko gaitasuna izatea eta barne-kontrolerako mekanismoak ezartzea. Erakundearen antolaketa-maila desberdinetako arduradunei ikastaro bat emango zaie, lan finantzarioetan trebatu eta horiek ongi egiteko gai izan daitezen.

Antolaketa-maila desberdinetako egituren edo unitateen funtzionamendua segurtatzeko, aurrekontu-partida bat emango zaie Estatu-mailako ohiko aurrekontutik, behar bezala funtziona dezaten. Hasieran, oinarri-oinarrizko egitura bat sortu eta sendotzera bideratuko da gastu hori, eta horren bidez finantza-kontrolak ezarri ahal izango dira; modu horretan, finantzak pixkanaka deszentralizatuz joan daitezke lortuko dugu, eta Podemosek bere osoan kontuak emateko duen obligazio ere konplitzeko dugu, aldi berean.

Estatu-mailako Finantza Batzordeak lehentasuna emango die ondoko lan hauei, herrialde-etako eta lekuan lekuko administrazio-egiturak sendotuz doazela segurtatzeko:

**1. Finantza-prozeduren estandarizazioa,** bai kontabilitate-plan orokorrean, bai kontrol finantzario eta politikorako mekanismoetan.

**2. Deszentralizazioaren lehen fasea:** administrazio-egiturak edo unitateak martxan jartzea Herrialdeetan eta Erkidegoetan, hauteskundeetara aurkezten direnekin hasita. Kontrol- eta finantza-mekanismoak martxan jarri beharko dituzte bere eskumenpean dauden tokietako egituretan.

**3. Deszentralizazioaren bigarren fasea:** plataforma bat sortzea, kontabilitatea sailetan banatuta eramateko; horren bidez tokiko administrazio-unitateak martxan jarri ahal izango dira, eta herrialde-etako eta tokian tokiko egiturak gai izango dira kontabilitatea argi eta zuzen eramateko; era horretan, erakundearen maila guztietan bermatuko da kontuak ongi eramaten direla.

Segidan, antolaketako eta barne-kontrolako mekanismoak planteatuko ditugu, ezinbestekoak baitira, gure ustez, Estatu herrialdeak alderdiaren egitura integratzeko moduari dagokionez, Podemosek hartuko duen antolaketa-eredua modu ordenatuan eztabaidara ekartzeko. Ez dakigu azkenean zer izen emango zaien mekanismo horiei, baina gure kautan daukagu, protokolo honetarako, Podemosen antolaketak egitura hauek izango dituela gutxienean: Estatu-mailako egitura bat, herrialde edo erkidego-mailakoak, tokiko egiturak eta Zirkuluak.

## **Estatu-mailako finantza-egitura**

Herritarren Kontseiluak eskarmentu eta gaitasun handiko bi arduradun hautatuko ditu, gutxienez: finantzeko arduradun bat eta kontu-hartzaile bat. Horietatik aparte, izendatu ahal izango ditu aditu askojakin independenteak ere, eta horien egitekoa finantza-batzordeari laguntzea izango da, duten esperientzia teknikoa horren esanetara jarritz. Batzorde horrek urteko txostena aurkeztuko du Herritarren Batzarrean eta Herritarren Kontseiluan. Finantzeko arduradunak eta, gutxienez, arduradun politiko batek, erakundearen maila-guztietan erantzukizunak dituenak, sinatuko dituzte urteko kontu bateratuak. Estatu-mailako Finantza Batzordeak behar diren mekanismoak izango ditu bere antolaketaren barruan, Herrialde eta Erkidegoetako egiturekin koordinatzeko.

Kontu-hartzaileak etengabe kontrolatu beharko du alderdiaren kudeaketa ekonomikoa, eta barruko nahiz kanpoko kontrol-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela segurtatuko du. Kontu-hartzaileak erregularitasunez kontrolatuko du kontabilitatea, eta ofizios jardun ahal izango du edozein administrazio-unitatetan. Irregularitasun larriak gertatu edo obligazioak konplitzen ez diren kasuetan, administrazio-unitateek eta Zirkuluak edo horien finantzeko arduradunek behartuta daude aurkeztera, ahal den prestasun handienarekin, kontu-hartzaileak eskatzen duen edozein dokumentu. Kontu-hartzaileak ofizios erretiratu ahal izango dizkie antolaketa-unitateei finantza-eskumenak; horretarako, Berme Demokratikoen Batzordeari idatzi bat egin beharko dio, arrazoiak emanez, eta horrek epaitu egingo du ireki den edozein prozedura, eta gaitasunik gabe uztea, zigor bat ematea eta kanporatzea izan daiteke epaia, kasuaren larritasunaren arabera. Kontu-hartzaileak barne-auditoritzako txosten bat egin beharko du, 2007/8 Lege Organikoak hala agintzen duenez.

Finantza Batzordeak, herrialdeetako eta tokian tokiko egiturekin kontsultatu ondoren, proposamenak luzatuko dizkio Herritarren Kontseiluari jardunbide egokiei buruz, barne-erregulazioei buruz eta zirkularrei buruz, baina Herritarren Kontseiluak hartuko ditu beti erabakiak kontu horien gainean. Antolaketan beheragoko mailan dauden egiturek autonomia izango dute beren arau propioak egiteko, non eta goragoko mailatan onartu direnen kontrakoak ez diren.

Estatu-mailako egituraren diru-sarrerak Estatu-mailan urteko aurrekontuak zehaztean definituko dira. Aurrekontuaren diru-iturriak hauek izango dira:

- Laguntza ekonomikoen ehuneko hainbesteko bat (portzentaje bat).
- Estatu subentzioak edo diru-laguntzak.
- Jarduera propioak eta irudiaren gestioa.
- Donazio puntualak.
- *Crowdfunding*-a proiektu konkretuak finantzatzeko.
- Erkidego- eta udal-subentzioen ehuneko hainbesteko bat.

## **Herrialde- edo Erkidego-mailako finantza-egitura**

Herrialde edo Erkidego bateko Herritarren Kontseiluak finantzetako arduradun bat eta kontu-hartzaile bat hautatuko ditu; kontu-hartzailea Herrialde edo Erkidego horretako Finantza Batzordeko partaide izango da. Herrialde edo Erkidegoko Finantza Batzordea udal-mailako finantza-arduradunekin koordinatuko da. Herrialde edo Erkidegoetako Finantza Batzordeek gardentasunaren eta kudeaketa arduratsuaren printzipioak konplitzen direla begiratuko dute dagokien esparruan. Horretarako, administrazio-egitura bat izango dute, zeinak kontabilitatea eramaten lagunduko dien udal-arduradunei eta Herrialdeko Zirkuluei, kontuak emateko eta obligazio fiskalak betetzeko.

Herrialde edo Erkidegoetako Finantza Batzordeak arduratuko dira, era berean, udal-egiturei eta Zirkuluei Erkidegoaren aurrekontutik izendatzen zaizkien diru-partidak bideratzea eta alde finantzariotik kontrolatzea.

Herrialde edo Erkidegoetako Finantza Batzordeek beste eginkizun hauek ere izango dituzte:

- Aurrekontu partizipatiboak kudeatzea proiektu sozialetarako, beren esparruan.
- Herrialde edo Erkidegoetako egitura politikoei, beren jarduerak egiteko, behar den laguntza ematen zaiela bermatzea.
- Herrialde edo Erkidegoetako Finantza Batzordeek beren esparruko ordezkarien eta kargu hautetsien ekonomia ikuskatuko dute, eta argitara emango dituzte horien ondarea, ondasunak, diru-sarrerak eta gastuak.

Herrialde edo Erkidego bateko egiturak jasoko duen diru-kopurua alderdiaren urteko aurrekontu orokorretik Herrialde edo Erkidego horri adjudikatzen zaion diru-partidatik etorriko da, eta bitarteko hauek direla medio handituko dira:

- Herrialde edo Erkidegoei ematen zaizkien diru-laguntzak. Horien parte bat Estatu-mailako aurrekonturako gordeko da, Podemoseko egitura guztien artean banatzeko. Estatu-mailako Finantza Batzordeak, Erkidegoetakoekin batera, proposamen bat aurkeztuko dio urtero Estatuko Kontseiluari, diru-funts edo fondo horiek estatu-mailako aurrekontuan banatzeko moduari buruz.
- *Crowdfundings* espezifikoak Herrialde- edo Erkidego-mailan.

## **Udal-mailako finantza-egitura**

Herritarren Udal-Kontseiluak finantzetako arduradun bat hautatuko du, eta Herrialde edo Erkidegoko Finantza Batzordearekin koordinatuko da hori.

Udalerriko Finantza Batzordeak -edo, halakorik izan ezean, lekuko Udal-Batzarrak hautatzen duen arduradunak- begiratuko du gardentasun-printzipioak eta betekizunak behar bezala konplitzen direla udalerrian, eta Herrialde edo Erkidegoko Finantza Batzordearen laguntza izango du horretarako. Udaleko Finantza Batzordeak administrazio-egitura bat eduki dezake, bere udalerriko Zirkuluei kontabilitate-lanak eramaten laguntzeko.

Udalerriko finantzetako arduradunak, Herrialde edo Erkidegoko Batzordeekin batera, bideratu eta kontrolatuko du udalerriko horretako Zirkuluari adjudikatu zaion aurrekontuaren parte.

Udalerriko finantzetako arduradunak eginkizun hauek ere beteko ditu, Herrialde edo Erkidegoko Batzordearekin koordinazioan:

- Aurrekontu partizipatiboak kudeatzea, bere udalerrian proiektu sozialak bultzatzeko, horretarako diru-partida bat adjudikatzen bada.
- Udalerriko egitura politikoei beren jarduerak egiteko behar duten laguntza ematen zaiela garantizatzea.
- Udalerriko finantza-batzordeak ikuskatu egingo du bere herrialde edo Erkidegoko ordezkarien eta kargu hautetsien ekonomia, eta argitara emango ditu horien ondarea, ondasunak, diru-sarrerak eta gastuak.

Udalerrietako egituren diru-sarrerak alderdiaren urteko aurrekontu orokorretik adjudikatzen zaien diru-partidatik etorriko dira; nolana ere, udalerriek jaso ditzakete bestelako diru-laguntzak ere, eta, halakorik balitz, parte bat Estatu-mailako aurrekonturako apartatuko da, Podemoseko egitura guztien artean banatzeko.

### **Zirkuluen finantza-egitura**

Zirkulu bakoitzak finantzetako arduradun bat hautatuko du, eta horrek kontuak emango ditu Zirkulu horretako kideen aurrean, bai eta udal- eta herrialde-mailan ere. Zirkuluko finantza-arduradunaren erantzukizuna izango da behar diren txostenak aurkeztea eta jardueretako gastuak ordaintzea, Estatu-mailan, Herrialde- edo Erkidego-mailan eta udal-mailan ezarri diren protokolo eta gidaliburuen arabera.

Zirkuluen diru-sarrerak iturri hauetatik etorriko dira:

- Jarduera konkretuak finantzatzeko, Zirkuluek eskubidea izango dute diru-partida bat jasotzeko Estatu-mailako aurrekontutik; eta, kolaborazioen formularioan, Zirkulu horri adjudikatuko zaion diru-kopuruaren portzentajearen arabera izango da horren zenbatekoa. Diru-fondo hori pilatuz joan daiteke, eta handitu ere egin daiteke Zirkuluentzako diru-partida espezifikoen bidez -Herrialde edo Erkidegoko egituren bitartez bideratuko dira diru horiek-.
- Herritarrei irekitakoa espazioetan jarduera ekonomikoren bat egiten bada, Zirkuluen esku geratuko da horren kudeaketa.

Alderdiaren egituraren parte izateko (administratiboki), eta Podemos gisa jarduteko, Zirkuluek Estatu-mailako Finantza Batzordearen baimena beharko dute, eta Batzorde horrek Herrialde- edo Erkidego-mailako eta Udal-mailako batzordeekin koordinazioan emango du baimena, ematekotan. Zirkuluak beren egitura administratzeko eta kudeatzeko gai diren neurrian eman edo ukatuko zaie baimena, ezinbesteko kondizioa baita hori kontabilitate- eta zerga-obligazioak betetzeko eta kontuak argi eta zehatz emateko.

Baimen horrekin Zirkuluek jarduera ekonomikoak egin ahal izango dituzte Podemosen izenean. Horretarako, ordea, alderdiarekin lotutako elkarteak sortu beharko dituzte. Elkarte horiek baimena izango dute lokalak zabaltzeko; lokal horiek, berriz, zentro sozial gisa jardungo dute, eta horietan publikoari saldu ahal izango zaizkio edariak, janaria, *merchandisinga* eta beste. Jarduera ekonomiko horiek erregulatzeko, protokolo bat jarraitu beharko da, Estatu-mailako Finantza Batzordeak egingo duena azterketa juridikoa egin ondotik. Ezingo da, inola ere, jarduerarik egin, aldez aurretik alderdiaren baimena jaso gabe; orobat, ezingo da jarduera ekonomikorik egin, jarduera hori ez bada alderdi politikoekin lotutako elkarteei eragiten dieten lege-xedapeneekin bateragarri. Zalantzarik balego, jarduera ekonomikoa martxan jarri aurretik, Zirkuluak legezkotasun-txosten bat eskatuko dio dagokion esparruko finantza-batzordeari. Zirkuluen jarduera ekonomikoek Podemos gidatzen dituzten printzipioak konplutuko dituzte, eta Udal-, Herrialde- eta Estatu-mailan ikuskatu eta kontrolatu egingo dira, erakundearen


irudia zuzen eta egoki erabiltzen dela segurtatzeko eta legezko obligazioak eta kontabilitateari dagozkionak konplitzen direla bermatzeko.

Deszentralizazioaren bigarren fase horrek aurrera egingo badu, martxan egon beharko du, gutxienez, Herrialde edo Erkidegoko administrazio-unitateak, kontrola efikaza izan dadin eta Zirkuluen kontuak alderdikoarekin bateratu daitezzen.

Zirkulu Sektorialak eta atzerrikoak Estatu-mailako Finantza Batzordearen menpe egongo dira, eta protokolo espezifikoa egingo da horientzat.

### **Xedapen iragankorra Zirkuluekiko**

Alderdiaren kontuekin bateratzeko kapaz diren neurrian, sortu ahal izango dituzte Zirkuluek Podemosekin zuzeneko lotura duten elkarteak. Podemosek ahal den prestasun handienarekin irekiko ditu, esparru guztietan, administrazio-unitateak, eta horien bidez behar diren kondizioak konplitzen dituzten Zirkuluak baliozkotzat joko dira administratiboki. Zirkuluek prozesu hori bizkortu ahal izango dute, udal-mailan eta herrialde-mailan egiturak sortzen lagunduz.



### **2.3. PODEMOSENTZAT LAN EGITEN DUTEN PERTSONAK**

Baliabide ekonomikoen arabera, enplegatu espezifikoak kontratatuko dira, lan eta eginkizun berezietarako; kargu publikoen laguntzaileen kontratazioak, berriz, Podemosen printzipio nagusiei jarraituz egingo dira. Estatu-mailan, Herriarren Kontseilutik sortutako organo betearazleek egingo dituzten proposamenen harira egingo dira kontratazioak. Udal-mailan eta Herrialde- edo Erkidego-mailan, esparru bakoitzeko Herriarren Kontseiluek onartuko dituzte kontratazioak.

Podemosek egiten dituen kontratazioak, proiektu edo programa espezifikoaren arabera lan jakinak egiteko, kasu bakoitzean indarrean dauden lan-arloko legeek eta hitzarmen kolektiboek arautuko dituzte.

Kontratzen diren pertsonak eta kargu publikoen laguntzaileek bere egin beharko dituzte Podemoseko Estatutuetan onartuak diren konpromiso etikoak. Lanbide arteko gutxieneko soldata halako hiru irabaziko dute gehienez ere Podemosen lan egiten duten pertsonak; halaber, argi zehaztu da lan-kontratu bakoitzak zenbat denbora iraungo duen gehienez ere. Ildo beretik, Podemosen soldatapean lan egiten dutenek urtero aurkeztuko diote dagokion finantza-batzordeari beren ondare pertsonalaren deklarazio bat, eta argi eta garbi deklaratuko dute Podemosekin zerikusirik ez duen beste jarduera ekonomikorik baduten ere.

Printzipio horien ildoan, Herritarren Kontseiluak arautegi bat egingo du, pertsonen kontratazioak erregulatzearen. Arautegi horretan argi eta zehatz definitu eta sailkatuko dira kontratazio motak, kategoriak eta soldata-etaulak, bai eta parte bakoitzaren eskubideak eta eginbeharrak ere, eta berdintasunezko soldata-eskala bat garantizatuko da. Arautegi horrek publiko egingo ditu hautaketarako prozesuak, eta kontuan hartuko ditu berdintasunezko printzipioak, eta pertsonaren merezimenduak eta gaitasunak; edozein herritarrek parte hartu ahal izango du prozesu horietan, eta ez da begiratuko ez aintzat hartuko Podemosen kide den edo ez.

## **2.4. HORNITZAILEEI EROSKETAK EGITEKO POLITIKA**

Podemosek hornitzaileen erregistroa eramango du, bai pertsona fisikoena, bai juridikoena: erregistratu egingo dira erakundeari inoiz zerbitzuak eman dizkietenak eta berdintasunez hornitu dituztenak, guztiak. Hornitzaileek alderdiari bidali beharko dizkiote indarrean dagoen arautegiak, unean unean, eskatzen duen merkataritzako dokumentazioa, baina inoiz ez ondasuna jaso edo zerbitzua egin zela baietsi zenetik hogeita hamar egun pasatu ondoren.

Kobratzeko dauden diru-kopuru guztiak faktura (edo ordainketa-eskaera) jasotzen denetik hogeita hamar egunetara ordainduko dira gehienez ere, salbu eta dokumentu edo faktura horiek produktuak entregatu edo zerbitzua egin aurretik jasotzen direnean; halakoetan, hogeita hamarreko epea egiaz entregatu zen egun edo datatik hasiko da kontatzen.

## **3. artikulatua**

### **1. artikulua. Gardentasuna eta finantza-independentzia**

Podemoseko finantzak gardentasunez eta independentziaz eramango dira.

Finantzetan gardentasuna eta kontuak argi ematea izango dira Podemosen funtzionamenduaren bi oinarriak, eta ondoko arau hauek bete beharko dira antolaketa-maila guztietan:

- Podemosek publiko egingo du informazio ekonomikoa, horretara modu errazean iristeko moduan, eta teknologia berriak baliatuko ditu horretarako, ahal den zabalkunderik eta erregulartasunik handiena bilatuz betiere.
- Alderdiak Afiliatuen Liburua egunean eramango du, bai eta Aktena, Kontabilitatearena, Diruzaintzarena eta Inbentario eta Balantzetakoa ere, eta horien bidez bere finantzak zer-nolakoak diren ezagutu ahal izango dira une oro. Halaber, gardentasun-txosten zehatzak egingo dira hiru hilabetez behin, eta urteko memorian argitaratuko dira.
- Podemosen iritzira, informazio ekonomikoa publikoa eta publikatu beharrekoa da, eta bere egiten du printzipio hori; informazio eta datu guztiak ezagutaraziko dira, pertsonalak direnak izan ezik, horiek ezin baitira publiko egin, datuen babesari buruzko legeek berariaz hala debekatzen dutelako.



- Podemosek bateratu egingo ditu esparru guztietako kontuak, bai eta, Podemosekin lotura estua izanik, Herritarren Kontseiluek administrazioaren aldetik baliozkotzat jotzen dituzten elkarteetakoak ere.

Podemosek bere egingo du finantza-independentziaren irizpidea, eta zorrotz konplutuko ditu ondoko kondizio hauek maila guztietan:

- Podemosek ez ditu zorrak egingo bankuekin, eta banku etiko eta kooperaziozkoetan zabalduko ditu, ahal den guztietan, bere kontu korronteak.
- Donazioak muga jakin bat izango dute, eta ezingo dira 10.000 eurotik gora eman pertsonako eta urteko; Podemoseko karguen kasuan izan ezik. 5.000 eurotik gora eman duten pertsona guztien izenak argitaratu dira, baina errespetatu egingo da Datuen Babeserako Lege Organikoa (DBLO).

## **2. artikulua. Gardentasuna barrutik**

Podemoseko edozein kideren eskura egongo dira alderdiak dauzkan dokumentu ekonomikoak, eta nahi duenean begiratu ahal izango ditu horiek guztiak, Datuen Babeserako Lege Organikoa berariaz debekatzen dituenak izan ezik.

## **3. artikulua. Urteko ekitaldirako aurrekontua**

Herritarren Kontseiluko organo betearazleak urtero aurkeztuko du, Finantza Batzordeak hala proposatuta eta Herrialde edo lekuan lekuko organismoen parte-hartzearekin, hurrengo urteko aurrekontua. Aurrekontu horrek diru-partida hauek izango ditu, gutxienez:

- Estatu-mailan edo herrialde- edo erkidego-mailan adjudikatutako diru-partidak.
- Zirkuluen lanetarako diru-funtsa edo fondoa.
- Hauteskundeetarako diru-funtsa edo fondoa.
- Lan soziala eta elkartasuneko egitera bideratuta dagoen diru-funtsa edo fondoa.

Herritarren Kontseiluak onartuko du esandako aurrekontu hori, urteko ekitaldi ekonomikoa hasi aurretik.

Urteko ekitaldi ekonomikoa bukatu ondoren, Herritarren Kontseilutik sortutako organismo betearazleak txosten bat aurkeztuko du Herritarren Kontseiluan, aurrekontua nola eta zertan erabiliko den azalduz, eta Herritarren Kontseiluak onartu edo atzera botako du txostenean egiten den proposamena.

## **4. artikulua. Finantza Batzordea**

Esparru bakoitzean, bertako Herritarren Kontseiluak finantzetako arduradun bat eta kontu-hartzaile bat hautatuko ditu, gutxienez, eta biek ala biek (edo hautatu direnek) dagokien Finantza Batzordean parte hartuko dute. Finantza Batzordea esparru-maila desberdinekin koordinatuko da, maila guztiek berei dagozkien erabakietan parte hartuko dutela segurtatzeko.

## **5. artikulua. Finantzetako arduraduna**

Estatu-mailako finantzetako arduradunak koordinatuko du herrialde bateko Finantza Batzordea. Finantzetako arduradunaren eginkizuna izango da finantzak egunez egun kudea-

tzea, ahal den modurik prestuenean, bere esparruari dagozkion printzipioen, erregulazioen eta protokoloen arabera.

Estatu-mailako finantzetako arduraduna diruzaintzaren eta inbentarioaren erantzule izango da, eta urteko kontu bateratuak egingo ditu. Finantzetako arduradunak urteko txostena aurkeztuko du Herritarren Batzarrean eta Herritarren Kontseiluan. Finantzetako arduradunak urteko kontuak sinatuko ditu, erakundeko maila orotan erantzukizun politikoa duen arduradun batekin batera, gutxienez. Finantzetako arduradunaren erantzukizuna izango da diruzainari izendutako edozein legezko obligazio konplitzea, 2007/8 Lege Organikoan, edo ondoren egindako zuzenketetan, agintzen den legez.

## **6. artikulua. Kontu-hartzailea**

Kontu-hartzaileak etengabe kontrolatu behar du kudeaketa ekonomikoa, eta egituren barruko eta kanpoko kontrol-sistemak segurtatu behar ditu; hala, ofizioz jardun ahal izango du bere barrutian gaitasun ekonomikoa duen edozein organoren gainean.

Estatu-mailako kontu-hartzaileak koordinatuko du Herrialde edo Erkidegoetako kontu-hartzaileen lana, eta txosten bat egingo du, barruko kontuak ikuskatzeko, 2007/8 Lege Organikoa konplitz. Antolaketa-maila guztiak behartuta daude kontu-hartzaileak eskatzen dien edozein dokumentazio aurkeztera, eta ahal den prestasun handienarekin egingo dute, gainera. Irregularitasun larriak gertatu edo obligazioak konplitzen ez diren kasuetan, kontu-hartzaileak ofizioz erretiratu ahal izango dizkie finantza-eskumenak gaitasun ekonomikoa duten organoei edo horien finantza-arduradunei; idatziz eta arrazoiak emanez jakinarazi beharko die Berme Demokratikoen Batzordeari, eta horrek erabakiko du, irekitako prozedura guztietan, zer zigor jarri behar diren edo erakundetik kanporatu behar diren irregularitasunen erantzuleak.

## **7. artikulua. Finantziario-iturriak**

Podemosek baliabide ekonomiko hauek izango ditu.

### **Finantziario pribatutik datozen baliabideak:**

- Podemoseko kolaboratzaileen diru-laguntzak edo ekarpen ekonomikoak.
- Podemosek egiten dituen lanetatik eta promozio-jardueretatik datozen baliabideak.
- Diru-donazioak, bereziki *crowdfunding-sistemak*.
- Espezetan egiten dizkiguten donazioak; prezioa erreala kalkulatu edo merkatu-prezioaren arabera kontabilizatuko dira, eta diru-donazioei jarri zaizkien mugak izango dituzte horiek ere.
- Podemosen ondarearen gestiotik datozen errendimenduak, halakorik balitz, eta herentziaz jaso ditzakeen ondasunak.
- Podemoseko kide bakar batek ere ez du baimenik donazioak dirutan jasotzeko.

### **Finantziario publikotik datozen baliabideak:**

- Hauteskunde-gastuetarako jasotzen diren diru-laguntza publikoak, zeinak lege hauek arautzen dituzten: Hauteskunde Erregimen Orokorreko 1985/5 Lege Organikoak eta hauteskunde-prozesuak erregulatzen dituzten Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretako legeriak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Herrialde Historikoen Batzar Nagusietakoak.

- Estatuaren urteko subentzioak, funtzionamendu-gastuetarako; lehen esandako lege organikoak arautzen ditu.
- Autonomia Erkidegoek, bakoitzak bere esparruan, ematen dituzten urteko diru-laguntzak, funtzionamendu-gastuetarako; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Herrialde Historikoen, eta, kasuen arabera, udalek edo tokiko administrazioek ere ematen dituzte diru-laguntzak, xede horretarako.
- Diru-laguntza ezohikoak propaganda-kanpainetarako -dauden erreferendum motak erregulatzen dituen Lege Organikoetan zehazten eta arautzen dira horiek-
- Alderdi politikoek, kasuan-kasuan, jaso ditzaketen ekarpen ekonomikoak instituzioetan lan egiten duten Talde Parlamentarioetatik (Gorte Nagusietako Ganberetan, Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretan eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Herrialde Historikoen Talde Parlamentarioetatik bereziki, bai eta udal edo tokiko administrazioetako ordezkari-taldeetatik ere).

### **Kreditu bidezko finantziazioa:**

- Podemos ez da finantzatuko bankuen kreditu bidez.

### **8. artikulua. Antolaketa eta kontrola**

Alderdiaren unitate administratibo gisa sortzeko eta legezko bihurtzeko, eta ekonomiaren aldetik Podemos bezala jardun ahal izateko herrialde-mailako antolaketan koska bat gorago dagoen Herritarren Kontseiluaren baimena beharko da. Eraginkortasunez lan egiteko behar adinako egitura edukitzeak, edo horretarako gaitasuna edukitzeak, baldintzatuko du erabaki hori; modu horretan, obligazio kontableak eta fiskalak betetzen direla eta kontuak argi ematen direla garantizatuko da.

Zirkuluek jarduera ekonomikoa egin ahal izango dute Podemosen izenean; horretarako, Herritarren Udal-Kontseiluak balioetsitako elkarteak sortu beharko dira, Estatu-mailako Finantza Batzordeak ezarriak dituen irizpideei jarraituz. Elkarteen jarduera ekonomikoek peto-peto konplitu beharko dituzte Podemosen oinarrizko bi printzipio: gardentasuna eta independentzia ekonomikoa; eta herrialde-, erkidego- eta estatu-mailan kontrolatu egingo dira, erakundearen irudia behar bezala erabiltzen dela bermatzeko eta lege- eta kontabilitate-obligazio guztiak konplitzen direla begiratzeko.

### 3. MODULUA: KONTROL DEMOKRATIKOA

Podemosek apustu irmoa egin du gardentasunaren alde, eta bere kargu publikoak behartuta daude kontuak argi eta zehatz ematera. Horretarako, harremanetan jarri gara **«quehacenlos-diputados.net»** (zer egiten dute diputatuek) taldearekin, are eta zorrozkiroago ezarri dezaten kontrol demokratikoa Podemosen; modu horretan, geure baliabide edo atari propioa izango dugu herritarrei kontuak emateko.

Uste dugu herritar guztiek erraz eta azkar eskuratzeko moduan egon behar duela edozein kargu publikori buruzko informazioak, jarduera parlamentarioari dagokionez; era berean, denon agerian eta argi adierazita egon behar du, gure iritziz, kargu publiko bakoitzak zenbat diru jasotzen duen eta zenbatekoa den haren ondasuna. Horregatik, parlamentuko parte-hartzeaz eta botazioez informatzearekin batera, zehatz eta argi eman behar dira parlamentari bakoitzari buruzko datu ekonomikoak ere: zer soldata jasotzen duen; nora edo zertara doan ematen duen soldataren parte bat (ematen badu); zertarako baliatzen diren haren esku jartzen diren herritarren diruak -adjudikazio publikoak-, eta, oso inportantea dena, haren ondasunen deklarazioak eta bankuko kontuek ere publiko izan behar dute. Horixe da modu bakarra segurtatzeko gure ordezkariak kargu publikoak ez dituztela inoiz erabiliko beren probetxurako eta beren mesedetan irabaziak ateratzeko.

**Oharra: Moduluak etengabe lantzen eta sakontzen ari diren proposamenak dira, eta ez dira berez estatutuetako testuaren parte.**